

ENPRESEN ADMINISTRAZIO ETA ZUZENDARITZAKO GRADUA

2020/2021 Kurtso Akademikoa

Gradu Amaierako Lana

TOKI-ADMINISTRAZIOEN GARDENTASUN-ANALISIA:

BERMEOKO UDALA

Ikaslea: Leire Abaroa Ormaza

Tutorea: Gaizka Zubiaur Etcheverry



Bilbon, 2021eko ekainaren 23an

LABURPENA

Urteak igaro ahala, gardentasunak eta informazio publikorako sarbideak gero eta garrantzi handiagoa lortu dute, herritarren aldetik bi hauen eskaria indartuz. Honen arrazoi garrantzitsu bat, gardentasunak eta informazioa edukitzeko eskubideak eskaintzen duen konfiantza da, honekin herritarrak jakinaren gainean bizi baitira. Gainera, informazio publikoa herritarren eskuetan egonez gero, kontrolatzeko eskubidea dute, demokrazia erreala eta eraginkorra lortuz.

Informazio publikoa eta hau edukitzeko eskubidea indartzeko, 19/2013 Legea, abenduaren 9koa, Informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko legea argitaratu zen. Honekin, aurrerapauso handiak egon dira gardentasunaren alorrean, udalak gero eta gardenagoak direlako herritarren aurrean. Horrez gain, legearen bidez erakundeak derrigortuta daude informazio hori erakusten; beraz, herritarren aldeko eskubideak ere sustatzen ditu lege honek.

Bermeoko Udalaren gardentasunaren azterketa egiteko, beharrezkoa ikusi da, lehenik eta behin, gardentasunari buruzko marko teorikoa azaltzea (definizioak, lege-esparrua, onurak eta desabantailak, bilakaera...), ondoren, Dyntraren eta Udaletxeen Gardentasunaren Indizearen (Transparency International España) aztertu ahal izateko. Analisi honen helburu nagusia, Bermeoko Udalak eskainitako gardentasun-maila egokia den edo ez aztertzea da, horrela izan ezean konponbideak proposatzeko. Bigarren mailako helburuei dagokienez, Bermeoko Udalak dituen gardentasunaren tresna ezberdinak ezagutu eta aztertu nahi dira, kudeaketa publikoetan gardentasunaren kultura sustatuz.

Amaitzeko, analisi honek mugak ere aipatzen ditu; hain zuzen, udalaren gardentasunaren atarian informazioa aurkitzeko zailtasunak edo informazio murriztuaren eskaintza, eta kasu batzuetan, dokumentuak edo datuak eguneratu barik egotea. Beraz, muga horiek gainditzeko udalarekin batera gardentasunaren azterketa burutzea interesgarria izango litzateke, web gunearekin laguntza gehiago egongo litzatekelako.

HITZ GAKOAK: gardentasuna, Open Government, Open Government Data, Open Data, informazio publikoa, informazio publikoaren sarbiderako eskubidea, udaletxeak, Dyntra, Udaletxeen Gardentasunaren Indizea (Transparency International), Euskal Autonomia Erkidegoa.

ABSTRACT

Over the years, transparency and access to public information have been gaining importance, reinforcing citizens demand for both. An important reason for this is the trust offered by transparency and the right to information, with which citizens live informed. In addition, if public information is in the hands of citizens, they have the right to control it, achieving real and effective democracy.

To strengthen public information and the right to it, Law 19/2013 of 9 December on access to public information and good governance was published. This has led to great advances in transparency, as municipalities are increasingly transparent to citizens. In addition, institutions are required by law to display this information, so this law also encourages citizens rights.

To carry out the analysis of the transparency of Bermeo it has been considered necessary, first of all, to expose the theoretical framework of transparency (definitions, legal framework, benefits and disadvantages, evolution...) to later be able to analyze Dyntra and the Municipal Transparency Index (Transparency International Spain). The main objective of this analysis is to analyze whether the degree of transparency offered by Bermeo is adequate or not to propose solutions. As for the secondary objectives, it is intended to know and analyze the different tools of transparency that Bermeo has, promoting the culture of transparency in public management.

To sum up, this analysis also refers to limitations, such as difficulty of finding information on the transparency portal of Bermeo or the offer of restricted information, and in some cases the lack of updating of documents or data. Therefore, it would be interesting to conduct a transparency study together to overcome these limits, as there would be more help with the web.

KEYWORDS: transparency, Open Government, Open Government Data, Open Data, public information, right of access to public information, municipalities, Dyntra, Transparency International, Basque Autonomous Community.

AURKIBIDEA

1.	SARRERA	1
1.1	LANAREN ZERGATIA ETA HELBURUAK	2
2.	GARDENTASUNAREN KONTZEPTUA.....	2
2.1	GARDENTASUNAREN DEFINIZIOA.....	2
2.2	GARDENTASUNAREN ONURAK.....	4
2.3	GARDENTASUNAREN DESABANTAILAK	6
2.4	GARDENTASUNAREN BILAKAERA	7
2.4.1	ESPAINIAKO UDALETXEEN GARDENTASUN EGOERA.....	11
2.4.2	EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO UDALETXEEN GARDENTASUN EGOERA.....	11
3.	GOBERNU IREKIA, ‘OPEN DATA’ ETA ‘OPEN GOVERNMENT DATA’	12
3.1	‘OPEN GOVERNMENT’ EDO GOBERNU IREKIA	12
3.2	‘OPEN DATA’ EDO DATU IREKIAK.....	14
3.3	‘OPEN GOVERNMENT DATA’	15
4.	GARDENTASUNA GARATZEKO LEGE ESPARRUA	16
4.1	GARDENTASUNA ETA INFORMAZIORAKO SARBIDE PUBLIKOA	16
4.2	GARDENTASUNAREN LEGE-ESPARRUA.....	18
4.2.1	NAZIOARTEKO LEGE-ESPARRUA.....	19
4.2.2	ESPAINIAKO LEGE-ESPARRUA.....	21
4.2.3	EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO LEGE-ESPARRUA.....	22
5.	GARDENTASUNA EBALUATZEKO EREDUAREN ERREFERENTZIA	23
5.1	UDALETXEEN GARDENTASUN INDIZEA (UGI)	24
6.	JARRAITUTAKO METODOLOGIA.....	25
7.	BERMEO ETA UDALETXEAREN AURKEZPENA.....	27
7.1	BERMEOKO UDALETXEAREN GARDENTASUN-ATARIA	28
8.	ANALISIAREN GARAPENA ETA EMAITZAK	29

8.1	UDALETXEEN GARDENTASUNAREN INDIZEA (UGI): BERMEOKO UDALA.....	29
8.2	DYNTRA.....	36
9.	ONDORIOAK.....	39
10.	MUGAK ETA ETORKIZUNEKO IKERKETA-ILDOAK.....	42
10.1	MUGAK	42
10.2	ETORKIZUNEKO ILDOAK.....	42
11.	BIBLIOGRAFIA.....	43
12.	ERANSKINAK.....	45

TAULEN AURKIBIDEA

Taula 1: ITA bidez eginiko analisiaren datuak erabiliz, Bermeoko Udalaren gardentasun-maila total estimatuaren kalkulua. Excel bidez eginiko elaborazio propioa..... 36

IRUDIEN AURKIBIDEA

Irudia 1: 2016ko Autonomia Erkidegoen gardentasun indizearen ebaluazio globala. <https://www.bizkaiatalent.eus/paisvasco-matricula-transparencia-internacional/> -tik ateratako grafikoa..... 10

Irudia 2: Gobernu Irekiaren osagaiak. Elaborazio propioa..... 13

Irudia 3: Bermeoko Udalako gardentasunaren atala. <http://www.bermeo.eus/index.html> -tik lortuta. ... 29

GRAFIKOEN AURKIBIDEA

Grafikoa 1: Espainiako Udaletxeen batz besteko gardentasunaren bilakaera. Elaborazio propioa. <https://transparencia.org.es> -tik ateratako datuak..... 8

Grafikoa 2: Autonomia Erkidego desberdinetako gardentasun-mailaren ehunekoak (2020). Elaborazio propioa. <https://www.dyntra.org/indices/ayuntamientos-de-espana/> -tik ateratako datuak..... 12

Grafikoa 3: Bermeoko biztanleriaren eboluzioa. Elaborazio propioa. <https://www.ine.es> -tik lortutako datuak. 28

Grafikoa 4: Apartatu bakoitzak Bermeoko Udaleko gardentasunaren atarian duen agerpena. Elaborazio propioa. <http://www.bermeo.eus/index.html> -ko informazioa oinarri hartuta..... 30

Grafikoa 5: Apartatu bakoitzak Bermeoko Udaleko gardentasunaren atarian duen agerpena. Elaborazio propioa. <http://www.bermeo.eus/index.html> -ko informazioa oinarri hartuta..... 31

Grafikoa 6: Apartatu bakoitzak Bermeoko Udaleko gardentasunaren atarian duen agerpena. Elaborazio propioa. <http://www.bermeo.eus/index.html> -ko informazioa oinarri hartuta..... 32

Grafikoa 7: Apartatu bakoitzak Bermeoko Udaleko gardentasunaren atarian duen agerpena. Elaborazio propioa. <http://www.bermeo.eus/index.html> -ko informazioa oinarri hartuta..... 33

Grafikoa 8: Apartatu bakoitzak Bermeoko Udaleko gardentasunaren atarian duen agerpena. Elaborazio propioa. <http://www.bermeo.eus/index.html> -ko informazioa oinarri hartuta..... 34

Grafikoa 9: Dyntra adierazleekin egindako Bermeoko Udalaren gardentasun-mailaren neurketaren emaitzak. <http://www.bermeo.eus/index.html> -tik hartutako datuak. Elaborazio propioa..... 37

1. SARRERA

Gardentasunaren terminoa gero eta gehiago erabiltzen eta entzuten da negozio ezberdinen, informazioaren etikaren eta erantzukizun sozialaren eztabaidetan, azken urteotan, funtsezko elementua bihurtuz. Gaur egun, edozein testuingurutan erabiltzen da, finantza-egoeretatik hasita, gobernu-politiketaraino. Horrez gain, aldizkarietan iritzi-artikulu askok, gizarteak gardentasunarekiko duen interes handia islatzen dute; batez ere, ziurgabetasunaren, herrialde eta erakundeen iruzurren eta konfiantza-gabeziaren egungo testuinguruan.

Krisi ekonomikoak, ustelkeria eta konfiantza-eza eragin zuzena du gizartearekiko, baina urteak igaro ahala gardentasuna garrantzia hartzen joan denez, entitateek zein erakundeek, egunerokotasuneko jardueretan aintzat hartzen duten kontzeptua da; beraz, herritarren, erakundeen eta entitateen, eta bai politikarien aldetik gertatu den jarrera-aldaketa harritzekoa izan da. Krisi ekonomiko honek pertsonen gan izandako eragina aztertzerakoan, gardentasun-ezarekin harremanetan dagoela ondorioztatu daiteke, funts publikoen erabilera txarra eta ziurgabetasun egoerak eraginda. Horregatik, informazioa denen esku edota erabakietan partaidetza gehiago bultzatuko balitz, jarduerak gaizki egiteko aukerak murriztagoak izango lirateke.

Udaletxeei dagokienez, oinarrizko erakunde publikoak dira. Erakunde hauek, herritarrentzat duten garrantzia eta hurbiltasuna nahikoak dira, hauek erakunde horiek ematen dituzten zerbitzu publikoen kudeaketan parte hartzaileak izateko. Herritarrek gardentasuna eskatzen dutenean, informazioa denentzako eskuragarri izatea eskatzen da; esate baterako, erakundeetako boteredunen helburuak zeintzuk diren eta helburu horiek nola lortuko diren azaltzea, datu ekonomiko-finantzarioak etab. Arlo publikoaren kudeaketarekin zerikusia duen guztia ulertzeko premia horrek, herritarrenganako hurbiltasuna pizten du eta kasu horretan, herritarren partaidetza handiagoa izango litzateke. Honekin batera, sistema demokratikoak hobierantz egingo luke, baliabideen kudeaketa hobetuz.

1.1 LANAREN ZERGATIA ETA HELBURUAK

Bermeoko herritarra izanik, udalarekiko gardentasun-maila egokia den edo ez jakitea beharrezkoa dela uste dut. Horregatik, lan hau Bermeoko Udalaren gardentasun-maila aztertzeke burutu da, honako bi plataforma erabiliz; Índice de Transparencia de los Ayuntamientos¹ eta Dyntra². Horretarako, gardentasuna neurtzeko dauden tresnak aztertuko dira; beti ere, Euskal Autonomia Erkidegoko arauak kontuan hartuz.

Hori dela eta, lan honen helburua, Bermeoko Udalaren gardentasun-adierazleak testuinguruan kokatzea, identifikatzea, aztertzea eta proposamen pertsonalak egitea izango da. Hau guztia burutzeko, ondorengo atal ezberdinak burutuko dira azterlanean zehar:

- Arazoak aurkituz gero edota hobetzeko aukerak egonez gero, proposamen ezberdinak egin; beti ere, gardentasunari lotutakoak.
- Bermeoko udaletxeak eskaintzen dituen gardentasun tresnak aztertu.
- Informazio ekonomiko-finantzarioa aztertu eta gai hauekin ere gardentasuna bideragarria bada egiaztatu.
- Hain garrantzitsua den herritarren partaidetza eta lankidetzaz aztertu. Baita informazio publikorako sarbidea analizatu.

Analisi hori egin ostean, Bermeoko Udalaren gardentasun-mailari buruzko puntuazio bat lortuko da, horrekin ondorioak ateraz, eta azken hauek positiboak ez badira, proposamen pertsonalak burutuko dira, gardentasunaren egoera hobetzeko.

2. GARDENTASUNAREN KONTZEPTUA

Erakunde baten gardentasuna aztertu baino lehen, kontzeptu honen definizioa jakitea ezinbestekoa da. Horregatik, atal honetan, gardentasunaren definizioa azalduko da eta baita, azken honen onurak eta desabantailak ere.

2.1 GARDENTASUNAREN DEFINIZIOA

Gardentasuna defintzerakoan, erakundeen zintzotasuna, etika eta erantzukizuna da, eta hiru ezaugarri hauei esker, gizarteari edo herritarrei garrantzi sozialeko inbertsio ekonomikoak zein kudeaketa motarekin eta zein jardueratan egiten diren jakinaraztea posible da. Horregatik,

¹ Índice de Transparencia de los Ayuntamientos (ITA). Gobernu kanpoko Nazioarteko Gardentasuna erakundeak Espainiako udalen eskura jartzen dituen tresna da, haien gardentasun-maila neurtzeko. Baliagarri hemen: <https://transparencia.org.es/ita-2017/>.

² Dyntra: Dynamic Transparency Index. Erakundeetan eta Gizarte Zibilean Gobernu Irekia neurtzen eta kudeatzen duen lankidetzaz-plataforma da. Honi buruz gehiago jakin nahi izanez gero, hurrengoa da web orrialde ofiziala: <https://www.dyntra.org>.

gardentasuna arlo ekonomiko, sozial eta legaleko gaiekin lotzen da. Beste modu batean esanda, gardentasuna botere publikoek beren kudeaketari, gizarteak ematen dizkien baliabideak erabiltzeari eta beren erabakien oinarri diren irizpideei buruzko informazioa, herritarren esku jarri eta aztertzeke betebeharra da; balio berriak, harremanetarako modu berriak eta kudeaketarako tresna berriak sartuz.

Hortik aparte, gardentasuna garrantziko kontzeptua da, honen bidez eskaintzen den informazioak nolabaiteko garrantzia edo ospea duelako. Gizarte informatu batean, datu edo informazio hori edukitzeko eskubidea gizarteak demokrazian duen lehenengo eskubidea da, herritar edo hiritar jakitun batek gainerako eskubideak osotasunean erabiltzeko gaitasuna duelako. Gainera, gardentasuna bultzatzeko argudio bat bezala uler daiteke, informazioa ezagutzaren atal nagusia delako, eta ezagutza horrek erabakietan parte hartzeko ardura eta askatasuna eskaintzen duelako.

Baina, kontzeptu honen definizioa aldatzen joan da. Horregatik, erakunde baten gardentasuna aztertzerakoan, zer den argi izan behar da, ondorengo puntuak kontuan harturik:

- Herritarrek beren baliabideen kudeaketari buruzko informazioa izateko duten funtsezko eskubidea aitortzea, kasu bakoitzean beharrezkoa den legeria erabiliz.
- Erakunde publikoek informazio egokia, egiazkoa eta kalitatekoa eskaintzea, kanal egokien bidez.
- Herritarrei informazioa baldintza berdinetan eskaintzea.
- Arduradunen kudeaketa publikoaren emaitzak erakusteko borondatea izatea, eta horrekin batera, herritarrek beraien eginkizunak nola bete dituzten jakiteko beharra izatea.
- Emaitzak ebaluatzea eta emaitzen arabera erabakiak hartzea.

Gaur egungo gizarte zabal eta integratu honen barruan, gardentasunak gizartean, ekonomian eta erakundeetan dituen proiektio guztietan aurrera egin behar dela kontuan hartu beharrezkoa da. Ondorioz, sektore publikoaren, finantza-merkatuen, enpresen... gardentasuna aintzat hartzekoak dira. Merkatu finantzario horiek adibide moduan jarriz gero, azken hauek oinarritzko osagaiak eskaintzeaz aparte, egungo sistema ekonomikoan konplexuagoak eta globalizatuagoak diren osagaiak ere eskaintzen dituzte, gizartean gero eta gehiago erabiltzen diren elementuak izanik; adibidez, banku-kontuetako dirua eta bestelako finantza-produktuak (eperako gordailuak, inbertsio-funtsak...). Beraz, zuzeneko lotura bat dago gardentasunaren eta merkatu hauen artean, funtzionamendu egokirako eta gardentasunerako interesa dagoelako.

Guzti hau kontuan izanik, hiru gardentasun-mota aurki daitezke:

- **Lankidetzazko gardentasuna:** konpainia baten gobernu korporatiboaren politika bat da, gizarteari bere merkataritza- eta finantza-jardueren, kudeaketaren, emaitzen eta Enpresaren Erantzukizun Sozialaren ekarpenaren berri emateko; hots, administrazioaren betebeharra datuak argitaratzea da, eta aldi berean, herritarrek datu horiek prozesatzeko eskubidea dute informazio berria sortzeko. Hemen, ondorio berriak lortzeko edo beste modu batera azaltzeko informazioa prozesatzeko gai diren gizarte-bitartekariak dute nagusitasuna.
- **Gardentasun aktiboa:** Erakunde eta entitate ezberdinetako administrazioaren betebeharra informazioa etengabe argitaratzea da, informazioa herritarren esku egonik. Argitalpena egiteko biderik merkeena eta ohikoena Internet bidez egitea da, eta hau, publizitate aktibo bezala ezagutzen da. Gainera, egungo aurrerapenak direla eta, informazioa modu eguneratu eta iraunkor batean egotea eskatzen du gardentasun mota honek. Zenbait herrialdetan, betebeharrak hau gobernu irekiaren politikarekin lotzen da.
- **Gardentasun pasiboa:** erakunde publikoek sortzen, kontrolatzen eta gordetzen dituzten datuak dira; hau da, gizarteak Administrazio Publikoaren esku dagoen informazioa edo datuak eskatu eta eskuratzeko duen eskubidea da. Hiru motetatik, gardentasun pasiboa lortzea biderik zailena eta motelena da, eskaera eta informazio-tratamendua kasu bakoitza kontuan hartuz egin behar delako. Ondorioz, gardentasuna lortu nahi denean, inbertsioa beste bi motetan egitea gomendagarriagoa da. Hala ere, gardentasun pasiboa informaziorako sarbidearen eskubide bezala uler daiteke; beraz, termino garrantzitsutzat hartzen da, pertsonak organo ezberdinen esku dauden datuak zein informazioa eskatzeko duen eskubidea aitortzen delako.

Laburbilduz, gardentasuna etengabe berritzen ari den prozesua da. Horregatik, erakundeek herritarren aurrean beraien jarduerak erakusteko borondate irmoa adierazi beharko lukete, gizartearekiko harremana ulertzeko modu berri bat agerian jarriko duten politikak gauzatu.

2.2 GARDENTASUNAREN ONURAK

Aipatu bezala, gardentasunak ez du horrenbesteko garrantzirik izan orain dela urte gutxi batzuk arte. Orain arte, entitateen filosofian komunikazio protekzionista zen nagusi; hau da, entitateetan ez zen gardentasunik azaltzen ez nabaritzen, eta hau, ekonomian onuragarria zela uste zen. Ondorio positibo hauek, ekonomia globalean, entitateen zuzeneko onuretan zein barne-antolamenduaren hobekuntzan antzemateen ziren, baina zenbait azterketa egin ostean, estatistikek, ingurune politiko gardenagoak dituzten herrialdeetan nazioarteko finantza-

merkatuek emaitza hobekoak lortzen dituztela berretsi dute. Aurrekoa aintzat hartuz, hurrengo paragrafoetan aipatutako onurak sakonduko dira.

Lehenengo eta behin, entitate edo erakunde bat gardena denean, **kudeatzaileen zintzotasun falta, kudeaketan jokabide desegokia eta botere-abusuak gertatzeko aukera txikiagoa** izango da. Gainera, gardentasun maila igotzen den heinean, herritarren **partaidetzak, erantzukizunak eta efizientziak ere gora** egiten dute, eta igoera honek, hobekuntza demokratiko zein bestelako hobekuntza (adibidez: kudeaketa eraginkor edo efizienteago bat, aurrezki gehiago, erabaki egokiak hartzeko aukera...) gehiago eragingo ditu. Beraz, gizartean informazio kopuru handiagoa dagoenean, existitzen diren **aukerak, inguruabarrak eta prozedurak hobeto ezagutzen** dira. Guzti hau dela eta, erabakiak hartzeko **ikuspegi berriak** sortzen direnez, bai ekonomian, politikan eta baita arlo sozialean ere hazkundea gertatuko litzateke. Kasu honetan, gerora aipatutako den “Open Government” kontzeptua nabarmentzekoa da. Honen bidez, herritarrek politikarien eta kudeatzaile publikoen jardueri buruzko ezagutza, informazio eta kontrol handiagoa izango dute. Bestetik, kudeaketa horretan esku hartzeko eta laguntzeko aukera izateko, kudeaketa publikoaren eta **herritarren arteko hurbiltasuna** areagotzen da. Gainera, herritarrek **kudeatzaile publikoei kontuak eraginkortasunez emateko** eskatu ahal izatea beste abantaila nagusi bat izango da.

Bigarrenik, Europar Batasunaren Oinarrizko Eskubideen Gutuneko 41. eta 42. artikuluetan agertzen den bezala, Europako herritarrek administrazio on bat edukitzeko eta Europako **erakundeetako dokumentuak modu libre batean eskuratzeko eskubidea** izango dute. Dokumentu publikoak eskuratzeko eskubideari dagokionez, onartuta dagoen ekintza da, herritarrei informazio-iturri bat ematen zaielako, gizartearen egoerari eta agintari publikoei buruzko iritzia sortzen lagunduz, eta modu honetan, **iritzien osotasuna eta eraginkortasuna sustatuz**. Gainera, informazioa eskuratzeko eskubidea izanez gero, **partaidetza eta lankidetzaren ugaritzen** dira eta gizartean erabakiak modu egoki batean hartzeko askatasuna egongo da.

Enpresei dagokienez, **talentu egokia erakar** dezakete gardentasunari esker; hots, gizartearekin etengabeko komunikazioa dagoenean, **enpresek garrantzia, ospea eta indarra** lortzen dute, eta era berean, **konfiantza-harremana sustatzen du** langileen, hornitzaileen eta bezeroen gan. Egoera honek, ezagutza handiagoa eska dezake (teknologia aurrerapenak direla eta, pertsona gehiagok informazioa jakinda arriskua ere handiagoa delako...), eta nahiz eta alde txarrak eduki, badaude onak ere, aplikatzen diren enpresa motari buruzko **informazio hobea** dutelako hautagaiek. Honek, informazioa jakin nahi dutenen **kalitatea hobetzen** du. Enpresekin jarraituz, kultura gardenak **helburu korporatiboen ulermena** sustatzen du eta estrategiak

komunikatzeak konpromiso handiagoa sortzen du langileen artean, galeraren arriskua handiagoa delako. Hau 2013. urteko, Harvard Business Review enpresak egin zuen inkestan frogatzen da, langileen %70ek konpromezu handiagoa dutela enpresaren estrategia etengabe eguneratzen eta jakinarazten delako.

Bukatzeko, azken urteetan erakundeekiko konfiantza galdu egin denez, erakunde publikoek eskainitako zerbitzuetan zintzotasuna nagusi bada eta erakundeen erabakiak hartzeko prozesuan parte hartzen duten eragileen arteko lankidetzaz-pizgarri bat sortzen bada, **erabakiak hartzerako orduan gardentasuna zuzenean eraginkortasun** bihurtuko da. Horrela, gardentasuna zeharkako eraginkortasun-sortzaile moduan definitu daiteke. Beraz, herritarren konfiantza eta onarpena indartzeko, jardueri buruzko, edo oro har, informazio-sorta bat emanda, herritarrek kontsultatutako informazioa ezagutu eta aztertu ondoren, **iritziak eta gomendioak adierazteko edo erabaki hobeak hartzeko aukera** sortzen da.

2.3 GARDENTASUNAREN DESABANTAILAK

Nahiz eta gardentasunak ondorio positiboak izan, alde negatiboa ere badu. Gardentasuna ez da berehalako prozesu bat, denbora igaro ahala lortzen delako; beraz, igaro beharreko denbora luzea denez, gardentasuna erakusten duten **erakundeetako arduraduna edo boteredunak direnengandik ahalegin handia** eskatzen du. Gainera, erakundeetako eragile edo arduradun horiek beharrezkoak diren baliabideak bezala sailka daitezke, orain arte erakundeek izandako filosofia edo gardentasun-ezaren egoera aldatzeko tresnak eta prestakuntzak ahalbideratu dezaketelako.

Gardentasuna praktikan jartzeko prozesua luzea denez, zenbait erakundetan **kostua handia** da, prozesuak eskatzen duen balorazioa eta ahalegina direla eta. Beste modu batean esanda, zenbait erakunde inbertsio bat egiten dute besteen aurrean gardentasuna erakusterakoan, eta inbertsio guztiak bezala, **arriskua** dago. Kasu honetan, informazioa gardena denez, baliteke herritarrek **gehiegizko informazioa** edukitzea eta honek galerak eragitea erakundeetan; esate baterako, erakundeen erabakiak herritarren gustukoak ez izatea. Hori dela eta, arrazoi ekonomikoengatik, antolamenduagatik eta araudiengatik sortzen diren ondorio negatiboak ere badaude.

Alde ekonomikoari dagokionez, erakundeek **aldaketa handiak** egin behar dituzte gardentasun-ezaren egoera aldatzeko; beraz, erakunde batek inbertitutako kopurua adierazgarria izan ahal denez, **arriskua handiagoa** izango da. Inbertsio honetan, tresna teknologiko ezberdinak, langileen trebakuntza edo formakuntzak, erakundeen motibazioa... barneratzen dira. Bestetik, erakundeetan boterea dutenek gardentasuna erakustearen kontra

egon daitezke, beraien **interes pertsonalen kontrako ekintza** modura defini dezaketelako. Horregatik, pertsona boteretsu horien pentsamendua aldatu beharko litzateke, mekanismo ezberdinak eratuz. Azkenik, prozesu berriak ezarri daitezke (errutina, txosten, izapide... berriak); beti ere, aldaketa horiek aztertuz, gardentasuna adierazteko prozesuak optimizatzeko.

Hortik aparte, **gardentasuna ez da erabatekoa**; hau da, erabaki askok botere-harremanetan eragiten dutenez, erabaki horiek opakotasunaren esparruan hartzen dira eta ondorioz, **beti ez da gardentasun osoa** egongo. Hortaz, une zehatz batzuetan, hori saihesteko ekimenak sortzen dira. Gainera, teknologia aurrerapenak gardentasunaren hazkundearekin lotuta daudenez, norberaren **ezagutza handiagoa** eduki behar da, erabakiak hartzen dituenak **erantzukizun handiagoa** duelako. Arrazoi hau dela eta, baliteke datuak eskaintzeko erantzukizun hori erakundeetako arduradunari uztea, gainerakoei eskubideak kendurik.

Amaitzeko, nahiz eta gardentasuna lortzeko prozesuak konplexutasuna edo puntu negatiboak eragin, azken hau arautzeko legedia dago; hain zuzen, 19/2013 Legea, abenduak 9koa, gardentasunari, informazio publikorako sarbideari eta gobernu onari buruzkoa, baina aditu batzuen aburuz, legeak sortzea ez da nahikoa eragozpenak ekiditeko. Legeetatik aparte, egunerokotasunean antolaketaren aldaketak ere egin behar dira. Aipatutako legearekin, erakunderen batek arauak ez betetzearen ondorioz, isun edo zigorrak jasoko ditu, baina zigor horiek prozesu edo mekanismoetan aplikatzerakoan, arazoak ager daitezke, erakundeetan kultura eta filosofia ezberdinak daudelako. Horregatik, helburua erakunde gehienek kultura antzekoa edo berdina izatea izango litzateke; adibidez, udaletxeetako arduradunek aman komuneko helburuak lortu behar dutela eta herritarrentzat lan egiten dutela argi izatea.

2.4 GARDENTASUNAREN BILAKAERA


Gardentasunaren aldeko lehenengo pausua Estatu Batuetan eman zen; zehazki, XVIII. mendean, Informazio Askatasunari buruzko legearekin (FOIA ingelesez). Honekin, informazioarekiko gardentasun handiagoa eskaini behar zela edo komenigarria zela aldarrikatu zen. Hortik aparte, Ingalaterrako zenbait komunitatek herritarren arteko eta zerbitzari publikoen artean bakarkako batzarrak burutzea lortu zuten. Hau dela eta, XVIII. mendetik aurrera informazioa denon artean edukitzeko eta eskuratzeko askatasunaren aldeko prozesua aurrera eramán izan da; beti ere, herritarrekiko gardentasuna defendatuz.

Gerora, lege berriak agertzen joan dira eta hauei esker, herritarrek informazioa eskuratzeko baimen gehiago dute; hau da, informazioa lortzeko erraztasun gehiago daude, legeek informazio-askatasuna edo erakundeen informazioa izateko askatasuna defendatzen dutelako. Lege hauen artean, Suediako "The Freedom of the Press Act of 1766" izan zen bat,

herrialde honetan, informazio publikoa eskuratzeko oinarritzko eskubidea onartu zelarik. Horrez gain, Espainian ere zenbait lege sortu ziren gardentasunari, informazio publikorako sarbideari eta gobernu onari buruzkoak; hain zuzen, 19/2013 Legea, abenduak 9koa.

Nahiz eta Estatu Batuetan gardentasuna nabarmenki nagusitu eta informazioa lortzeko baimenak erabili, beste erakunde batzuetan sekretua eta opakutasuna izan dira nagusi. Hala ere, erakunde horien gardentasunaren bilakaera motela baina konstantea izan dela esan daiteke, azkenean, arrazoi ezberdinengatik gardentasun hori nabarmendu baita; esate baterako, informazioaren eta teknologiaren aurrerapenengatik (gardentasunaren prozesuak erraztu direlako), gizartearen modernizazioagatik, gardentasunaren legeriaren garapenagatik... Arrazoi guzti hauek, erakundearen egituretan aldaketak eragin dituzte, lehen informazioa modu bertikal batean antolatuta zegoelako, boterea goiko aldean kontzentratuz. Orain, berriz, informazioa ia denen eskura dagoenez, nahiz eta gardentasuna erabatekoa ez izan, agerikoa da.

Espainiako egoera aztertuz gero, erakundeek iritzi ezberdinak dituzte gardentasun-mailari buruz. Zenbaiten ustez, ez da beharrezkoa erakundeek buruzko informazioa edo informazio publikoa eskaintzea, estrategia hutsa delako eta datu asko komunikatzeak beldurra pizten dielako. Baina badaude kontrako iritzia duten erakundeak ere. Azken hauentzat, Espainiako erakundeak gardenak dira, baina gizarteak gardentasun hori ez dagoela pentsatzen duela uste dute. Hala ere, Espainiaren kasuan, erakundeak gardenagoak direla ikusi da urteak igaro ahala:



Grafikoa 1: Espainiako Udaletxeen batz besteko gardentasunaren bilakaera. Elaborazio propioa. <https://transparencia.org.es> -tik ateratako datuak.

Grafikoa 1-en azaltzen den bezala, gardentasuna aztertu duten erakundearen joera gorakorra eta etengabea izan da; 2008. urtean, bataz beste 52,1ko gardentasun-maila lortu zelako, eta ostera, 2017an 89,9ko bataz besteko puntuazioa. Horregatik, azkenengo urteetako datuak adierazgarriak dira; gardentasun-maila %5,5ean igo delako, hau erakundeak gardenak izatearen onurak (ekonomiko sozial eta politikoak) identifikatu dituztelarik.


Era berean, gardentasuna lantzeko jarduera jasagarria izatea beharrezkoa da eta erakundeek gai edo alderdi interesdunen eta, oro har, gizartearen eskakizunei erantzungo dien alderdi estrategiko-kulturaltzat hartzeko konpromiso moduan hartu behar dute gardentasuna. Honekin batera, erakundeek tresnak eta prozesuak aldatu behar dituzte, errealitate berri honetara egokitzeko eta atzerapenik ez izateko; adibidez, informazioa ez eskaintzerakoan, baliteke beste erakundeekin konparatuz egoera txarrago batean kokatzea, gardentasunaren onurak lortu gabe.

Horrez gain, igoera hau bi faktorek baldintzatu ditzakete:

- Legezko estandarrak eta aginduen garapena aplikatzea.
- Gizarte-sareen garapena eta herritarren kontzientziaren areagotzea; kultura eta sentsibiltatea areagotuz.

COVID19-a dela eta bizi dugun egoerak gardentasunean eragina duela esan beharra dago, informazioa eskaintzeko moduak inoiz baino garrantzia handiagoa hartu duelako. Horretarako, zenbait gomendio garatu dira, eskaintzen den informazio publiko eta egiazkoarekin, iturrietan konfiantza sortuz; bereziki egoera honetan, informazio publikoa denbora errealean eskuragarri eta ebaluatua edukitzea garrantzitsua delako.

Espainia alde batera utziz, Euskal Herriak bere erakundeen gardentasunean ohorezko matrikula lortu zuen (2016an), Espainiako estatuan lehenengo postua lortuz. Horregatik, 2017ko Espainiako Nazioarteko Gardentasunaren txostenen (Transparency International España moduan ezagutua) arabera, Euskal Autonomia Erkidegoa autonomia-erkidego gardenena izan da. Hala ere, autonomia-erkidego guztiek hobekuntza bat izan dute informazioa eskuratzeko eskaerei erantzutean, eta herritarrek informazioa lortzeko eskubide gehiago dute orain. Gainera, *Grafikoa 1*-en azaldu den bezala, gardentasuna aztertzen duten erakundeak areagotzen dira, eta honekin, gardentasunak gaur egun duen garrantzia islatzen da. Beraz, autonomia-erkidegoak aztertuz gero, Euskal Herria autonomia gardenena da, hurrengoak Madril, Katalunia eta Balear Uharteak (98,1eko puntuazioarekin) izanik.



Irudia 1: 2016ko Autonomia Erkidegoen gardentasun indizearen ebaluazio globala.
<https://www.bizkaia.talent.eus/paisvasco-matricula-transparencia-internacional/> -tik ateratako grafikoa.

Ohorezko matrikula hori lortzeko Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa gobernantza-eredu berri bat ezartzeko eta finkatzeko prozesu batean murgilduta egon da. Eredu honen helburua, garapen sozial, ekonomiko eta instituzional iraunkorra lortzea zen, gobernuaren, gizarte zibilaren eta jarduera sozial eta ekonomikoaren artean oreka bat sustatuz. Honekin batera, herritar informatuak, parte-hartzaileak, aktiboak eta arduratsuak lortzen dira, behar bezalako informazioa jasotzen dutelako, proposamenak egiteko aukerarekin eta erakundeekin lankidetzan aritzen direlako.

Horrela, hurbileko zabalkunde-sistemen bidez herritarrei beharrezko informazioa bermatzen zaienez, herritarrek parte hartzeko aukera izango dute, era berean, kudeaketa publikoan gardentasun handiagoa lortuz. Horrez gain, politika publikoak ebaluatzeko mekanismoak ezarri dira Euskal Autonomia Erkidegoan, azken honek herritarren onarpen-maila eta ase nahi diren beharren benetako estalduraren egiaztatzea erraztuz.

Esandako guztia kontuan hartuz, urteetan zehar gardentasunak izandako bi teoria daudela esan daiteke. Alde batetik, herritarren aldetik informazio gehiago jakiteko gogoia piztu denez, erakundeak informazio hori ematera behartuta sentitzen dira; eta eskaintzerakoan, lege egokiak erabiliz (informazioa eskuratzeko eta eskaintzeko legeak). Eta bestalde, erakundeek beraien aldetik gardentasuna hobetzeko ekimena dute, interes handi honek emaitzak hobetzeko aukera ematen duelako.

2.4.1 ESPAINIAKO UDALETXEEN GARDENTASUN EGOERA.

Bilakaerarekin jarraitzeko, Espainiako udaletxeek izandako gardentasunaren joera aztertuko da atal honetan. Aurrerago aipatu den 19/2013 Legea, abenduak 9koa, gardentasunari, informazio publikorako sarbideari eta gobernu onari buruzkoa, Espainiako udaletxeetan derrigorrezkoa da. Baina honek ez du esan nahi udaletxe guztiek gardentasun-maila zehatz bat edo osoa dutenik, legea gardentasuna lortzeko baliabide garrantzitsua izan arren, azken honen ezarpen hutsa ez delako nahikoa. Hortaz, gardentasuna egoteko, informazioa eskaintzearen eskubidea aitortzeaz gain, ezinbestekoa da erakundeek erreklamazioak egiteko mekanismoak egotea. Laburbilduz, administrazio-organoak, babeserako mekanismo judizialak eta zehapen administratibo eta penalak egotea komenigarria da; hauekin batera, sustapena, kontrola eta berrikuspena aurrera eramanez.


Gardentasuna neurtzen duen indizearen emaitzak aztertuz gero, Espainiako udalen %44 inguruk, ez dute lortu gardentasunaren gutxieneko ehunekoa (%90), eta egoera hau kezkarria da. Nolanahi ere, 2017ko Udaletxeen Gardentasunaren Indizearen (Índice de Transparencia de los Ayuntamientos) analisisian ebaluatutako udal guztien batez besteko puntuazioak altuagoak izan dira, gero eta erakunde gehiago aurkezten direlako gardentasun-maila aztertzeraz. Gainera, nabarmendu beharreko beste ezaugarri bat, batez beste ebaluazio-aldian hobekuntza handiak egon direla da; hain zuzen, agerikoa da udalen web orrialdeetan hauen aldeko interesa.

Laburbilduz, gardentasuna egon arren, egoera hobetu daiteke, udalak ez direlako herritarrei gustatuko litzaiokeen bezain gardenak. Hala ere, tokiko esparruan, udal askok gardentasun-politikak arduraz hartu eta azterketak egiteko jardunbide egokiak eratu dituzte. Baina gardentasunari, informazioa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko legeak azken xedapenetako 9.-ena ezartzen du eta gardentasunari eta sarbide-eskubideari buruzko erregulazioak bi urteko salbuespen-legea duela harrigarria da. Bitartean, Espainiako udaletxe askok informazioa herritarren artean eskaintzearen edota publizitate aktiboaren araua erabat aplikatuta dute, eta gainera, modu normalizatu batean kudeatzen dute gardentasuna; esate baterako, Fuengirolako, Bartzelonako eta Madrilgo udaletxeek.

2.4.2 EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO UDALETXEEN GARDENTASUN EGOERA

Euskal Herriari dagokionez, beste eskualde batzuek lortutako batez bestekoekin alderatuta, EAEko udaletxeak gardenagoak dira. Hau horrela dela frogatzeko, *Grafikoa 2*-ean; non gardentasunaren ehunekoak eta Autonomia Erkidego ezberdinak agertzen diren, autonomia-erkidegoetako eskualdeetako batez bestekoak jasotzen dira, EAEko udalak eskualde gehienak baino gardenagoak izanik; Aragon, Madrilgo Erkidegokoak, Murtziako eskualdea eta

Errioxakoak izan ezik. Beraz, nahiz eta aurrerago esan bezala, Euskal Herriak gardentasunaren ohorezko matrikula eduki, udalak gardenak badira ere, badaude gardenagoak direnak



Grafikoa 2: Autonomia Erkidego desberdinetako gardentasun-mailaren ehunekoak (2020). Elaborazio propioa. <https://www.dyntra.org/indices/ayuntamientos-de-espana/> -tik ateratako datuak.

Analisi hau, Dyntra izeneko plataformarekin burutu da, 2020. urteko datuak oinarri hartuta. Ranking-ean, 2020. urtean ebaluatutako 31 erakundeetatik, hamar udalek Euskal Autonomia Erkidegoko gardentasun-maila egokia betetzen dutela erakusten da; 2020ko Dyntra estandarrei dagokienez, ebaluatutako udalen %32,26k gardentasunean onartzen duelako; hau da, gardentasun-maila egokia dute, eta %67,74k ez du onartzen. Analisi honetan, Bizkaia, Gipuzkoa eta Araba bana daitezke. Bizkaiari dagokionez, 16 udal aztertu ziren 2020an, hauetatik %37,5k gardentasun-maila gaindituta eta %62,5k gainditua lortu gabe. Gipuzkoan, ostera, udal gutxiago aztertu ziren, azken hauek 13 izanik, eta udalen %23,08ak bakarrik gardentasun-maila gainditurik. Eta azkenik, Araban 2 udal bakarrik aztertu ziren; besteak beste, Gasteizko (%91,36ko gardentasun-maila) eta Laudioko (%24,69ko gardentasun-maila) udalak.


3. GOBERNU IREKIA, ‘OPEN DATA’ ETA ‘OPEN GOVERNMENT DATA’

3.1 ‘OPEN GOVERNMENT’ EDO GOBERNU IREKIA

Gobernu Irekia, “Herritarrekin etengabe hitz egiten duena, haiek esaten eta eskatzen dutena entzuteko, beren behar eta lehenetsuetan oinarritutako erabakiak hartzen dituen, herritarren eta funtzionarioen lankidetzan ahalbidetzen duena ematen dituen zerbitzuen garapenean, eta erabakitzen eta egiten duen guztia modu ireki eta gardenean komunikatzen duena” da (Calderón y Lorenzo, 2010). Honen helburua, herritarrek zerbitzu publikoak sortzea eta hobetzea da; eta bestalde, gardentasuna eta kontu-ematea indartzen laguntzen du. Termino

GOBERNU IREKIA, 'OPEN DATA' ETA 'OPEN GOVERNMENT DATA'

honek hiru oinarri nagusi ditu: gardentasuna, lankidetzeta eta partaidetzeta, eta hauek batuta, Gobernu Irekia osatzen da, honek dakartzan onurak barneratuz.



Irudia 2: Gobernu Irekiaren osagaiak. Elaborazio propioa.

Gardentasuna Gobernu Irekiaren osagai bat bezala ere definitu daiteke; *Irudia 2*-n agertzen den moduan. Partaidetzeta eta lankidetzeta oso aldagai garrantzitsuak dira, balio publikoa sortzeko aukera ematen dutelako, baina batez ere, gizarteak parte-hartze handiagoa duelako, azken hauek legitimatuak izanik. Horregatik, *Irudia 2*-an azaltzen dira Gobernu Ireki bat eratzeko hiru funtsezko aldagai: partaidetzeta, gardentasuna, eta lankidetzeta. Azken hauekin, gardentasunaz hitz egiten denean, ez da zertan Gobernu Ireki azaltzeko hitz egin behar, baina alderantziz bai, azken finean, Gobernu Irekia osatzeko gardentasuna egotea funtsezkoa delako.

Gobernu Irekia sustatzeko, herritarrak eraginkortasunez inplikatzea beharrezkoa da gizarteak erakunde publikoetan duen konfiantza murrizten denean, eta ondorioz, herrialdeek aurre egiten diote herritarrekiko harremana birformulatzeko eta parte-hartze mekanismo eraginkorragoak sartzeko erronkari. Horretarako, herritarrek parte hartzeko estrategia bat garatu dezakete, eta Gobernu Irekiaren estrategia bakarrarekin lotu. Beste hitz batzuetan esanda, Gobernu Irekia garatzeko, mantentzeko eta ezartzeko herritarren eta gizarte zibilaren partaidetzeta eta harremana beharrezkoak dira.

Amaitzeko, Gobernu Irekiaren kontzeptua ez da berria, Erresuma Batuan 70. hamarkadan hasi zirelako erabiltzen. Honen bilakaerari dagokionez, politika eta zerbitzu publikoak balioesteko eta epaitzeko gaitasuna duen herritartasun arduratsuen filosofia finkatzen da. Horretarako, herritarrei informazio publikoa eskuratzeko eta erabiltzeko eskubideak ematea ezinbestekoa da. Beraz, Gobernu Irekia aipatzen denean, informazioa eskuratzeko, datu-babesen, legeen erreformen eta gobernuen jarduerari buruzko informazio erabilgarria eta eskuragarria lortzeko beharri buruz ari gara.

3.2 ‘OPEN DATA’ EDO DATU IREKIAK

“Open data” edo datu irekiak edozein pertsonak edo erakundek, modu libre batean, eskura ditzakeen datuak dira; hau da, datu hauek, inolako erabilera-murrizketarik gabe, berrerabili eta birbanatu daitezkeen datuak dira. Beste hitz batzuetan azalduz, kontzeptu honi buruz ari garenean, eskuragarri dauden datuei egiten diogu erreferentzia, baina datu hauek ezaugarri batzuk bete behar dituzte “irekiak” izateko; adibidez, parte-hartze unibertsala existitzea, berrerabiltzeko eta birbanatzeko aukera egotea...

Datu irekien garrantziak azterketa teorikoa eta enpirikoa izan du azken urteotan. Gainera, gobernu irekiaren ereduaren logikan, hauen helburua gobernuaren eta gizartearen arteko lankidetzaren lantzen duen gobernu bat lortzea da; besteak beste, gardenagoa eta demokratikoagoa izateko. Baina datu irekiek ez dute gardentasuna soilik hobetzen, onura ekonomikoak, entitateen aurrerapenerako eta administrazio publikoen eginkizunetarako konponbide berritzaileak ere sor ditzaketelako.

Datu hauek berrerabiltzeko legeak egin dira, eta gainera, informazioa modu errazago batean eskuratzeko administrazio publikoek atariak garatu dituzte; hain zuzen, datu-biltegiak gordetzeko. Administrazio publiko hauek, berrerabilpenaren bidez sortutako datuak erabiltzen dituzte, honekin batera, plan estrategikoak diseinatu. Hau guztia dela eta, “Open data”, berrikuntzarako, hazkunderako eta gardentasun aberatsago baterako tresna moduan definitzen da. Hori kontuan hartuz, datu irekiak argitaratzeko motibatzen duten bi arrazoi nagusi daude:

- Kalitate demokratikoaren garapena: informazioa eskuratzeko eta gardentasun handiagoa izateko datu irekien ekimenak ustiatzen dira.
- Ekonomiaren garapena: balio soziala eta ekintzailea sortzea ahalbidetzen du, informazioaren hazkundearekin batera.

Datu hauen onurei dagokienez, erantzukizun handiagoa eta ustelkeria gutxiago ekarriko lukete. Gainera, datu irekietan oinarritutako zerbitzu berriak sortuz, erabiltzaileek balio soziala gehitzen dute, eta horrek ere interes komertzialak izan ditzake. Baina onuretatik aparte, alde txarra ere badago; adibidez, erakunde askok bultzatzen dituzten datu irekien politikak, kultura-oztopoak eragitea. Alde horretatik, gobernu batzuek ez dute “Open data” defendatzen; hots, ez dute datu-irekien borondate politikoa erakusten, eta baliabide ugari eta ahalegin gehiago eskatzen dela uste dute; baita datuak argitaratzea kaltegarria izan daitekeela ere. Guzti hau kontrolpean egingo ez balitz, ondorio negatibo gehiago agertuko liriteke, datuen garrantzia gero eta handiagoa baita. Egungo erakunde asko, datuekin lan egiten duten sistema

teknologikoen mende daude, eta nahiz eta datuen babesari garrantzia eman, honi buruzko arauak ezarriz, datuen abantaila desleiala lortu duten interes ekonomiko eta politikoak daude.

Azken finean, aurrerapen teknologikoak datu irekien prozesuan murgilduta daudenez, digitalizazioa kontuan hartzea garrantzitsua da; datu-base irekiak, egituratuak eta antolatutako edukitzeko. Gainera, Gobernu Irekiak plangintza estrategikoa behar du, diskurtso politikoak balio soziala duten politika publikoko ekintzetan islatzeko eta datu irekien ustiapena behar bezala sustatzeko.

3.3 'OPEN GOVERNMENT DATA'

Filosofia honek, gardentasuna, kontu-ematea eta balioaren sorpena sustatzen ditu, erakundeen datuak edozeinentzat eskuragarri egon daitezkeen. Erakunde ezberdinek, datu eta informazio kopuru handiak sortzen dituzte; horregatik, datu-multzoak sortzen dira, eta honela, erakundeak gardenagoak eta arduratsuagoak dira herritarren aurrean. Hurrengo zerrenda honetan "Open Government Data"-ren onurak sailkatzen dira:

- Konfiantza: Gobernu Irekiaren ondorioa da, herritarren artean erakunde edo entitateenganako konfiantza edukiz gero, hartutako erabaki gehienekin ados egongo lirateke; adibidez, tasak eta zergak ordaintzerakoan.
- Berrikuntza: aurrerapen teknologikoak ugariak dira gizartean. Berrikuntza hauekin jardura ekonomiko berriak sustatuko lirateke.
- Betetze-mailak: hauen igoerak, gizarteak prozesu ezberdinetan parte hartzea dakar, erreforma ezberdinak ulertuz eta erabaki ezberdinak beraien gustukoak eta bidezkoak direla bermatuz.
- Eraginkortasuna: herritarrek prozesu zein erabakietan esku hartzen badute, politikak berriazkoagoak izatea berma dezakete. Gainera, eraginkortasuna hobetzen da, herritarren ezagutzak eta baliabideak aprobetxatuz.

"Open Government Data"-rekin jarraituz, garapen bidean dauden herrialdeek informazioa eskuratzeko eta garapen jasagarria lortzeko dituzten gaitasunak indartzeko, Gobernu Irekiak, baliabide publikoen erabilera eraginkorragoan eta herritarrentzako zerbitzuen hobekuntzan oinarritzen dira. Halaber, garapen jasagarria lortzerakoan, datu irekiak eragin handia du, eragin hau positiboa izanik; bai berrikuntzarako, gardentasunerako, hazkunde ekonomikorako eta kontu-emateetarako. Azken finean, Gobernu irekiari esker, herrialdeei laguntza eskaini diezaieke aurrerapenerako garapen-programak hobetzen, ustelkeriari aurre egiten eta

eraginkortasuna handitzen, horrela, helburutzat jartzen den garapen jasangarria lortuko litzateke.

4. GARDENTASUNA GARATZEKO LEGE ESPARRUA

Orain arte, gardentasunaren kontzeptuaren bilakaera aztertu da, baina egungo egoera ulertzeko, lege esparrua zein den ezagutzea beharrezkoa da.

Atal honetan, nazioarte-, nazio- eta erkidegoen mailan gardentasun-prozesuak burutzeko eta aplikatzeko lege-esparrua aztertuko da. Legeriak oso eginkizun garrantzitsua du gardentasuna aztertzeko momentuan, honen prozesuan beharrezkoak diren kultura eta ezagutzen garapenaren aurretik doalako. Gainera, erakunde eta entitate askok ez lukete informaziorik emango legeak betetzera derrigortuta ez balira egongo; horregatik, legeriari nolabaiteko garrantzia ematen zaio. Hala ere, legeak aplikatzeak ez du esan nahi erabateko gardentasuna dagoenik, beste aldagai batzuk ere eragina dutelako.

4.1 GARDENTASUNA ETA INFORMAZIORAKO SARBIDE PUBLIKOA

Informazioa gizartearentzat eskuragarri egotea abantaila garrantzitsua da, gizarteak parte-hartzeko eta datu ezberdinak jakiteko eskubidea izango luketelako. Gainera, gizarte demokratiko batean partaidetzaren, erantzukizunaren eta demokraziaren aldetik gardentasun-maila onargarriak edukitzea ezinbestekoa da, herritarrek kudeaketa publikoan eragiteko bitarteko bat delako. Horregatik, informazioaren eskuraketa erraz batekin eta berrerabiltzeko aukerarekin, gardentasunak eta informaziorako sarbide publikoak zerikusi handia dute. Beste modu batean esanda, kudeaketa publikoko gardentasunaren aurrerapenaren, lege-garapenaren eta herritarrek informazioa eskuratzeko dituzten aukeren artean harreman estua dago.

Harreman estu hori lortzeko beste kontzeptu garrantzitsua publizitate aktiboa da, gardentasunaren eta informazioa eskuratzearen arloko joera iraultzaile handia dena; batez ere, Internet bidezko publizitatea. Gaur egungo gizartean, Internet norberaren egunerokotasunean barneratuta dagoen bitartekoa da; bai komunikazio pribatuetan eta baita laboraletan ere. Gainera, gai publikoen kudeaketan gardentasun-maila handia izateaz aparte, administrazio elektronikoa eta informazioaren digitalizazioa geldiezinak dira, eta azken hauek, normalean, arau bidez ezarrita daude. Horregatik, agintariak informazioa gizartearen eskura jarri behar dute; bereziki, informazioa eskuratzeko eskubidea sortu zeneko helburua lortzeko garrantzitsuen dena.

Publizitate mota honek ez du esan nahi zuzenbidearen xedeari eta mugei buruzko funtsezko arauak baliorik gabe utzi behar direnik, baizik eta argitalpenaren erantzuleak

aztertze lan proaktiboa egin behar dela. Era berean, gizartearen eskura jarritako informazio berria eta balio erantsiko zerbitzuak sortzeko lagungarria izan daiteke, eta hauekin jatorri ezberdineko datuekin gurutzatuz gero, aplikazio berriak asmatu ahal izango liriteke. Ondorioz, informazio hobea eman ahal izango da agintari publikoen eskura, hauen politikak hobetzeko eta herritarren beharretara egokitzeko. Ideia guzti honek, lankidetzazko gobernu eta gobernu irekiaren ideiarekin bat egiten du, aurrerago aipatu den “Open Data” izeneko proiektuaren atzean dagoenarekin. Proiektu horiek, sarbide-legeetan jasotako mugek babestutako interesak babesten direla bermatzeko erronka planteatzen dute, datuak gurutzatzeak eta aplikazio berriak sortzeak sor ditzakeen arrisku berriak kontuan hartuta; adibidez, intimitatearen kontzeptua eta datuen babeserako kontzeptu zabalena bereiztea ekarri zuen kezka.

Hori dela eta, funtsezkoak eta ezinbestekoak diren hiru alderdi daude:

- Lehenengo, informazio publikoa modu praktiko eta eroso batean eskuragarri egotea. Honek, dokumentu publikoak eskuragarri edukitzeaz gain, kudeatzaileen erabakiak ere kontuan eduki behar direla esan nahi du. Gainera, informazioa ezagutzeko sarbidea ere modu erraz batean agertu behar da, informazioa edo datuak ulergarriak izanik.
- Bigarrenik, dokumentuen eta erabaki publikoen atzean dauden pentsaera eta eragin teorikoak interesdun guztiek ezagutzea. Herritarrek erabakiak zergatik eta nola hartu jakin behar dute, beharrezkoa izanez gero, kudeatzaile publikoei erantzukizunak eskatu ahal izateko.
- Azkenik, bai kudeatzaileek eta bai herritarrek sektore publikoaren erabakiak hartzeko prozedurari laguntzeko aukera izatea, prozesuan parte duten pertsonak eta erakundeak jakinaren gainean egonik.

Informazio publikoa eskatzeko edo eskuragarri izateko baimenei dagokienez, sistema demokratiko batean denek dute informazio hori eskatzeko eta jasotzeko eskubidea, gai politikoetan parte hartzeko aukera izanik. Horrela, kudeaketa publikoaren gardentasun-maila egokia eta arduratsua ziurtatuko litzateke, boteredun hauen ekintzek herritarren beharrei erantzun diezaieten. Hau guztia dela eta, informazio publikoa eskuratzeko eskubidea, juridikoki, nazioarteko eta eskualdeko funtsezko eskubide bezala onartzen da. Orobat, eskubide honen eta herritarren partaidetza sustatzeko tresna edo elementuak hurrengoak dira:

- Oinarrizko eskubidea; informazioa oinarrizko giza-eskubide gisa eskuratzea. Sistema Interamerikarra³ izan zen informazioa eskuratzea oinarrizko eskubide gisa onartzeko eskualdeko sistemetako lehenengoa. Eskubide honek, herritarrei beren esku dagoen informazioa edukitzeko aukera ematen die, noski, azken hau ondorio positibo bat izanik.
- Zuzenbide instrumentala. Honekin, beste eskubide mota batzuk lor daitezke; besteak beste, ekonomikoak, sozialak eta kulturalak. Kasu honetan, informazioa jasotzeko eskubideak herritarren egunerokotasunean eragina izan dezaketen zenbait egoera ulertzeko eta erabaki egokiak hartzeko gaitasuna garatzeko aukera ematen die.
- Kudeaketa publikoaren eta gobernu demokratikoaren elementua. Elementu honi esker, kudeaketa publikoaren eraginkortasuna handiagoa da, bereziki baliabide publikoen erabileran, eta gainera, kontu-emate eta eragiketen gardentasunerako beharrezkoa da. Halaber, norbanakoen eskubideen errespetua eta garrantzia areagotzeko erantzukizun handiagoa sustatzen du, eskaera publikoei arreta hobeago bat eskainiz. Tresna honekin, gainera, ustelkeriaren aurka egiteko elementua da, kontrol publiko eta kontu-emate handiagoa eragiten duelako.
- Herritarren partaidetza indartzeko elementua. Sistema demokratiko batean informazioa eskuratzeko eskubidea izatea oso garrantzitsua da, gardentasunarekin batera ezinbestekoa den gizartearen partaidetza areagotzen eta bultzatzen duelako, eta baita prozesu politikoaren funtzionamendu egokia ere.

Laburbilduz, herritarrek informazioa eta datuak ezagutzeko edo hauetara sarbidea izateko eskubidea lortzea garrantzitsua da, honekin gardentasuna lortzen delako eta azaldu bezala, gardentasunak onurak dituelako; bai ekonomikoak, bai politikoak eta baita sozialak. Hori dela eta, erakunde zein entitateen eta herritarren artean konfiantza sortuko litzateke, denen onerako diren erabakiak hartuz. Amaitzeko, informazioa herritarrengana egokitu behar da; adibidez, erakunde publikoen informazioa, ebaluazio-sistemen datuak... Beraz, oso garrantzitsua da informazio motak identifikatzea, herritarrei erabaki egokiak hartzen laguntzeko.

4.2 GARDENTASUNAREN LEGE-ESPARRUA

Espainiako krisi ekonomiko, politiko eta instituzionalen ondorioz, herritarretan zalantza edo konfiantza-eza piztu da; eragile eta erakunde politiko nagusien zilegitasuna zalantzarria

³ Giza Eskubideak Babesteko Sistema Interamerikarra. Arau substantibo eta prozesalen, organismoen eta salaketa mekanismoen multzoa da. Eskuragarri hurrengo esteka honetan: <https://www.examenonuvenezuela.com/organos-de-la-oea/cidh/el-sistema-interamericano-de-proteccion-de-los-derechos-humanos> .

izatera pasatu arte. Gainera, duela zenbait hamarkadetatik, ustelkeria kasu ugarien hedapenari eta sakontasunari beste arrazoi gehitu zitzaizkion, eta horiek, herritarren administrazio publiko guztiei kontuak emateko eta gardentasun handiagoa izateko eskakizuna areagotu zuten; eta baita Europan ere, estatu kide askok beraien legeak dituztelako.

Horregatik, informazio publikorako sarbidea hobetzeak erakundearekiko eta sistema politikoarekiko konfiantza-mailaren hazkundera dakar, herritarren partaidetza hobetuz eta ondo eraturako iritzi publikoa eratuz; honek, egonkortasuna eta kalitate demokratikoa sortzen duelarik. Hau guztia kontuan hartuz, hurrengo atal ezberdinetan, nazioarteko, Espainiako eta Euskal Herriko gardentasunari buruzko lege-esparruak azalduko dira.

4.2.1 NAZIOARTEKO LEGE-ESPARRUA

Gardentasuna lortzeko eta informazio publikorako sarbiderako eskubideari dagokionez, 1789ko Gizakiaren eta Herritarraren Eskubideen Deklarazioa da adierazpen garrantzitsuenetako bat. Deklarazio honetan, herritar guztiek ekarpen publikoaren beharra egiaztatzeke eta onartzeko eskubidea eta beraien kudeaketaren kontuak eskatzeko duten eskubidea defendatzen da; hau da, alde batetik, herritarrek boteredunen edo arduradunen aurrean duten boterea goraiatzeko da; eta bestetik, administrazioari baliabide publikoen kontu-ematea behartzeko eskubidea.

Gerora, 1948ko Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsala agertu zen, eta aurrerago aipatutako 1789ko Gizakiaren eta Herritarraren Eskubideen Deklarazioan oinarritzen da. Testu honetan, gizabanako denek iritzi- eta adierazpen-askatasuna eduki behar duten eskubide aldarrikatzen da; esate baterako, ikerketak egiteko ahalmena izatea, informazioa eta iritziak jasotzea... Baina nahiz eta Deklarazio honek hori agindu, informazioa eskuratzeko eskubidea ahalik eta gehien onartu behar dela uste da, informazioa jasotzerakoan, eragozpen handiena datuak eskatzeko ahalmena ematen duen prozesurik ez dagoela delako.

Aurrekoarekin batera, 1996ko Eskubide Zibil eta Politikoaren Nazioarteko Ituna aipatzea interesgarria da. Aipatutako deklarazioari indarra emateko, indar juridikoa zuen testu bat idaztea zen helburua; non testuak, giza eskubide guztiak (ekonomikoak, zibilak, politikoak, sozialak eta kulturalak) bildu behar zituen. Proiektu honetan, Estatuaren arteko desadostasuna egon zen; hau da, Estatu kapitalistek askatasun-eskubideak bultzatzen zituzten heinean, Estatu komunistek eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalak nabarmentzen zituzten. Hala ere, azkenean bai Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen, eta baita, Eskubide Zibil eta Politikoaren Deklarazioak ere onartuak izan ziren:

- Eskubide Zibil eta Politikoen Deklarazioa: 18. artikulua, gizartean pentsamendu-, mugimendu-, adierazpen- eta kontzientzia-askatasuna aitortzen du.
- Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Deklarazioa: izenak esaten duen bezala, eskubide kulturalak, sozialak eta ekonomikoak aitortzen dira.

Deklarazio hauetatik aparte, 1948an, Bogotan egindako Nazioarteko Konferentzia Amerikarrean onartu zen Gizakiaren Eskubideen eta Betebeharren Amerikako Adierazpena dago. Adierazpen honek, edozein agintari eskudunei errespetuzko eskaerak aurkezteko eskubidea aitortzen du, interes orokorra zein partikularra izan. Eta honekin batera, 2000. urteko Adierazpen Askatasunari buruzko Printzipioen Amerikako Deklarazioa dago, AEBen adierazpen-askatasunari buruzko dokumentu ofizial osoena izanik. Deklarazio honek, Estatuaren esku dagoen informazioa eskuratzea gizabanakoen oinarrizko eskubidea dela aldarrikatzen du, Estatu behartuta egonik eskubide horren erabilera bermatzera.

Nazioarteko inplikazioaren ondorioz, aurreko adierazpenek baino garrantzi gutxiago duten legegintza-proposamen ezberdinak daude, gardentasuna eta sarbide-eskubidea adierazten dutelarik; denetatik, Amerikarteko Gutun Demokratikoa aipagarriena izanik. Gutun honek, demokraziaren gobernu-jardueren gardentasuna, sinesgarritasuna, kudeaketa publikoko gobernuen erantzukizuna, gizarte-eskubideekiko errespetua eta adierazpen-askatasuna funtsezko osagaiak direla adierazten du. Guzti hauei ahalik eta onarpen handiena ematea da gomendagarriena, Iberoamerikako Estatuak interes publikoko herritarren ekintzen bidez eskubideak erreklamatzeko eskubidea sendotu arte.

Frantzia, Danimarka, Finlandia, Suedia, Herbehereak, Estatu Batuak eta Kanada izan ziren gardentasunari eta informazioa eskuratzeari buruzko legeak burutu zituzten lehenengoak. Lehenengo eta behin, aurrerago aipatu den *“Freedom of the Press Act of 1766”* dago. Lege honek, suediarren informazio publikoa eskuratzeko eskubidea osatu eta bermatzen du, eta administrazio publikoak egiten dituen jarduerak ezagutzeko aukera ere ematen du. Bigarrenik, sektore publikoko dokumentuetarako sarbidea *“Act on the Publicity of Official Documents of 1951”* legearen bidez arautu da. Honekin, gobernuaren gardentasuna indartu, herritarren lankidetzatza handitu eta herritarrek eztabaida publikoan parte hartzeko aukerak hobetu nahi dira.

Danimarkari dagokionez, *“Access to Public Administration Files Act of 1985”* dago, eta izenak esaten duen bezala, herritarrek datuak eta informazio publikoa eskuratzea nahi da, administrazio publikoko fitxategietara sarbidea izanik. Herbehereetan ere helburu berdina lortu nahienez, *“Act containing Regulations governing Public Access to Government Information (1991)”* legea aipagarriena da.

Atal honekin amaitzeko, Estatu Batuetan eta Frantzian zentratuko gara. Frantzian, Administrazio Dokumetuarentako Sarbide librerako legea onartu zen 1978. urtean., eta lege honetan, informazio publikoak herritar guztien zerbitzura egon behar duela adierazten da, nazioarteko lankidetzaren esparruan garatuz. Gainera, Frantziako herritarrei erakunde publikoen dokumentu administratibo guztiak eskuratzeko aukera ematen die. Estatu Batuei dagokienez, gardentasunari buruzko 1. legea onartu zuen 1966. urtean; hain zuzen, *“Freedom of Information Act”*. Lege honek, pertsona orok agentzia federalen erregistroetan sartzeko eskubidea duela aitortzen du; hau da, Estatu Batuetako herritarrek, gobernuak duen informazioa ezagutzeko aukera izango dute.

4.2.2 ESPAINIAKO LEGE-ESPARRUA

Espainiaren kasuan, 1978ko Espainiako Konstituzioaren 105. artikulua, herritarrek informazio publikoa eskuratzeko dituzten gaiari buruzko lehenengo aipamena egiten du. Gerora, gardentasuna arautzeko lege bat onartu zen; hain zuzen, 19/2013 Legea, abenduak 9koa, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzkoa. Lege honek, funtsezko bi alderdi ditu ardatz moduan:

- Alde batetik, jarduera publikoaren gardentasunaren hobekuntza. Horretarako, alde aurretik errekerimendurik gabe ezarritako subjektuek bete beharreko informazio jakin bati buruzko publizitate-betebeharrak ezartzen ditu. Gainera, informazio publikoa eskuratzeko dagoen eskubidea aitortzen du, informazio hori erabiltzeko baldintzak eta modua ezarrita.
- Bestetik, gobernu onaren arauak ezartzen ditu, boterea dutenek bete beharrekoak, eta baita horiei buruzko arau-haustek eta zehapenak. Gainera, legeak organo bat osatzen du; hain zuzen, gardentasunerako eta Gobernu Onerako Kontseilua. Azken honek, funtzio ezberdinak betetzen ditu; esate baterako, helburuen betetze-maila eta kontrola.

Lege honen aplikazio-eremua oso zabala da, administrazio publiko, erakunde autonomo, estatu-agentzia, enpresa-erakunde publiko eta zuzenbide publikoko erakunde guztiak barneratzen dituelako. Hortik aparte, merkataritza-sozietateei ere aplikatzen zaie; beti ere, haien kapital sozialean aipatutako erakunde zuzeneko edo zeharkako partaidetza %50 baino handiagoa bada, bai eta sektore publikoko fundazioei eta aipatutako administrazioek, erakundeek eta entitateek osatutako elkarteei ere.

Publizitate aktiboari dagokionez, lege honek betebeharrak ezartzen dizkie behartutako subjektuei, eta horrek informazio jakin bat modu irekian zabaltzea dakar, administrazioen baimenik gabe, baina informazio publikoa eskuratzeko eskubide zabala ere eratzen du. Eskubide

hori mugatzeko aukerak daude, baina informazioaren izaerak eta datu pertsonalak babesteak hala eskatzen duen kasuetan soilik.

Baina Estatu mailan, Espainiako Konstituziotik eta aipatutako legea onartu arte, beste zenbait lege egon dira, horietako batzuk hurrengoak izanik:

- 30/1992 Legea, azaroaren 26koa, Administrazio publikoen eta administrazio prozedura erkidearen araubide juridikoa. Lege honetan, herritarrek Administrazio Publikoarekin duten harremana eta informaziorako sarbidearen eskubidea aitortzen da.
- 263/1996 Errege Dekretua, otsailaren 16koa, Estatuko Administrazio Orokorrek teknika elektronikoa, informatikoa eta telematikoen erabilera arautzen duena. Lege honi esker, informazioaren hedapena errazago burutu izan da.
- 17/2009 Legea, azaroaren 23koa, zerbitzu-jardueretan askatasunez sartu eta aritzeari buruzkoa. Honen helburua, prozedurak sinplifikatzea da, zerbitzuen kalitatea sustatzeko.
- 27/2006 Legea, uztailaren 18koa, ingurumenaren arloko informazio eskuratzeko, herritarrek parte hartzeko eta justiziara jotzeko eskubideak arautzen dituena. Lege honek, informazio eskuratzeko, partaidetza publikorako, justiziarako eta ingurumenerako eskubideak arautzen ditu. Hortik aparte, kudeaketa publikoaren sektore txiki bati zuzendutako legea denez, oso garrantzitsua da.
- 37/2007 Legea, azaroaren 16koa, sektore publikoko informazioa berrerabiltzeari buruzkoa. Lege honen helburua, sektore publikoko administrazioek eta erakundeek prestatu edo gordetako dokumentuak berrerabiltzeko araubide juridikoaren oinarritzko erregulazioa egitea da.

4.2.3 EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO LEGE-ESPARRUA

Euskal Herrian ez dago gardentasuna zuzenean arautzen duen legerik. Hala eta guztiz ere, 2/2016 Legea, apirilak 7koa, Euskadiko tokiko erakundeei buruzko legea dago, non gardentasunari eta honen aldagaiak aipatzen diren; esate baterako, Gobernu irekia. Lege hau, Euskadiko antolamendu juridiko-instituzionalerako arau juridiko garrantzitsuenetako bat da, baina Eusko Legebiltzarra 1980an legeztatzen hasi zenetik, 35 urte baino gehiago igaro dira Euskadiko toki-erakundeen lege bat onartu arte.

Esan bezala, ez dagoenez gardentasuna zuzenean arautzen duen legerik, 19/2013 Legea, abenduak 9koa, Gardentasunari eta Gobernu Onari buruzko arauari; eta 39/2015 Legea, urriak 1ekoa, Administrazio publikoen kudeaketa prozedurari buruzko legerari egiten zaie erreferentzia. Bi lege hauek; nahiz eta Estatukoak izan, Euskal Autonomia Erkidegoko eta haren

GARDENTASUNA EBALUATZEKO EREDUAREN ERREFERENTZIA

sektore publikoko administrazio orokorrari eta instituzionalari zuzendutako informazio-eskaeretan eragina dute. Beraz, Euskal Autonomia Erkidegoko gardentasunaren marko juridikoa konplexua dela esan daiteke, datuak eskuratzeko ez delako arau bakarria kontuan hartu behar.

Era berean, EAeko Autonomia Estatutuak eskumen eksklusiboak aitortu eta ematen dizkie foru-organoei, beren erakundeen antolaketan eta funtzionamenduan. Gainera, Lurralde Historikoen eskumenen berezitasuna dela eta; hain zuzen, 27/1983 Legea, azaroaren 25ekoan zehaztutakoa, bakoitzak gardentasunari buruzko araudi bat du: 1/2017 Foru Araua, otsailaren 8koa (Araba); 1/2016 Foru Araua, otsailaren 17koa (Bizkaia); eta 4/2019 Foru Araua, martxoaren 11koa (Gipuzkoa).

4.2.3.1 BIZKAIA

Esan bezala, Bizkaian 1/2016 Foru Araua, otsailaren 17koa, Bizkaiko Gardentasunari buruzkoa ezartzen da. Foru Arau honen helburua gardentasuna bermatzea da, publizitate aktiboaren eta informazio publikoa eskuratzeko eskubidearen bi dimentsioetan. Beraz, Foru Aldundiari eta Bizkaiko Lurralde Historikoko sektore publikoko erakundeei eragiten die.

4.2.3.2 GIPUZKOA

Gipuzkoari dagokionez, 4/2019 Foru Araua, martxoaren 11koa, Gobernu Onekoari buruzkoa, foru-gobernantza publikoaren esparruan. Bigarren Foru Arau honen helburua gobernu onaren kontzeptua arautzea da, foru gobernantza publikoaren esparruan. Gobernantza publikoari buruz hitz egitean, integritate-sistema bati buruz ari gara; hain zuzen, planifikatzen, ebaluatzen eta kudeaketa-eredu aurreratua daramana.

4.2.3.3 ARABA

Azkenik, Arabaren kasuan, 1/2017 Foru Araua, otsailaren 8koa, Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoaren gardentasunari, herritarren parte-hartzeari eta gobernu egokiari buruzkoa. Foru arau honen helburua Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoaren eremuan, administrazio.-jardueraren gardentasuna, publizitatea, gobernu ona eta informazio publikoa eskuratzeko eskubidea erabiltzeko baldintzak arautzea da.

5. GARDENTASUNA EBALUATZEKO EREDUAREN ERREFERENTZIA

Nazioarteko Gardentasunari (TI-España bezala ezagutzen dena) dagokionez, ustelkeriaren kontra egiteko gobernu kanpoko erakunde unibertsal bakarria da. Horrez gain, erakunde honek, zenbait gardentasun-indize argitaratu ditu; besteak beste, Udaletxeen Gardentasun Indizea, Autonomia Erkidegoen Gardentasun Indizea, Uraren Kudeaketaren Gardentasun Indizea, Aldundien eta Parlamentuen Gardentasun Indizea, Futbol taldeen Gardentasun Indizea, Kirol

Federazioen Gardentasun Indizea eta Enpresa Publikoen Gardentasun Indizea. Azken finean, Espainiako erakunde askoren informazio publikoaren gardentasun-ezari egin nahi zaio aurre, eta hori eginez, ustelkeriak dakartzan arriskuei ere aurre egitea errazagoa izango litzateke.

Espainiako Nazioarteko Gardentasunaren erakunde honek dituen ekintza eta helburuak kode etikoan, Estatutuetan eta interes-gatazkei buruzko politikan oinarritzen dira, helburuak hurrengoak izanik:

- Gardentasuna: gizartearen helburu nagusia da, informazioa eskuratzeko eskubidearekin, partaidetzarekin, Gobernu Irekiarekin... harremanetan egonik.
- Konpromiso soziala: konpromiso honekin, Espainiako erakunde publikoek herritarrei informazio-maila handiagoa eskaintzen diete, hauen partaidetza handituz. Honi esker, herritarrek erabakiak modu egokiago batean hartzeko aukera dute.
- Ustelkeriaren aurkako borroka: ustelkeriaren aurka egiteko, gardentasuna hartzen da tresna moduan, erakundeen kudeaketan jardunbide egokiak sustatzeko.

Laburbilduz, Espainiako Nazioarteko Gardentasunak nazioarteko proiektuak jartzen ditu abian eta baita ordezkariak nazionalak lortzen dituzten emaitzak kudeatu ere. Gero, proiektu eta emaitza guzti horiek Espainiako kasuari aplikatzen zaizkio, informazioa bilduz eta analisiak eginez; horrela, Espainian dauden erakunde desberdinek hobetzeko aukera izan dezaten.

5.1 UDALETXEEN GARDENTASUN INDIZEA (UGI)

Udaletxeen Gardentasun Indizeak (ITA bezala ezagutua) herritarren edo, oro har, Espainian dauden udalek herritarrekiko duten gardentasun-maila neurtzeko tresna da. Tresna honek, sei edizio burutu ditu, azkena 2017. urtekoa izanik eta edizio honetan, Espainiako 110 udaletxe nagusi erabili dira gardentasuna neurtzeko. Lehenago azaldu den bezala, aurreko urteetan baino udal gehiago ebaluatu dira, hauentzat gardenak izatearen filosofia oso garrantzitsua delako.

Horrez gain, Udaletxeen Gardentasun Indizea (hemendik aurrera UGI⁴) sei atal ezberdinetan banatzen da, eta atal hauen arabera, udal bakoitzak puntuazio bat lortuko du, hauek betetzen duten gardentasun-mailaren arabera. Hori egindakoan, aztertu diren Espainiako udalen gardentasun-mailaren arabera zerrenda edo ranking bat burutzen da, aipatutako atal horiek hurrengoak izanik:

⁴ Udaletxeen Gardentasun Indizea (UGI). Web orrialde ofiziala: <https://transparencia.org.es/indices-transparencia-espana/>

- Gardentasun aktiboa eta udal korporazioari buruzko informazioa.
- Herritar eta gizartearekin dagoen harremana, web orrialdeak eta herritarren partaidetza.
- Gardentasun ekonomiko-finantzariora.
- Kontratazioen, hitzarmenen, diru-laguntzen eta zerbitzuen kostuen gardentasuna.
- Hirigintza, herri lan eta ingurumen arloetako gardentasuna.
- Informazioa eskuratzeko eskubidea.

Atal hauek gardentasun-maila egoki bat lortzeko funtsezkoak dira. Laneko hirugarren puntuan azaldutakoarekin bat, Gobernu Irekia lortzea izango litzateke helburua, hau gardentasunak, partaidetzat eta lankidetzat osatzen dutelarik. Gobernu Ireki batekin, herritarrek parte-hartzeko aukera eta informazioa eskuratzeko eskubidea dutenez, gardentasun ekonomiko-finantzariora edota zerbitzu ezberdinen kostuen, diru laguntzen eta kontratazioen gardentasuna kontuan hartzekoa da. Guzti hau gizartearen eskuetan balego, gardentasun-maila osoa egongo litzateke.

Nahiz eta indize honen helburu orokorra gardentasuna aztertzea izan, baditu bigarren mailako beste helburu batzuk ere. Alde batetik, udalen informazio-kulturaren sustapena da, epe jakin batean, Nazioarteko Gardentasunak eskatzen duen informazioa udaletxe bakoitzaren web orrialdeetan argitaratzeko aukera ematen delako. Honek, udaletxe bakoitzaren gardentasun-mailaren puntuazioa hobetzeaz gain, erakundeek herritarrei eta gizarteari eskaintzen dieten informazio baliagarri eta garrantzitsuaren maila handitzen laguntzen du. Bestetik, udalek herritarrenganako duten hurbiltasuna areagotu nahi da, tokiko korporazioetatik jasotzen duten informazioa gehituz, udalen egoerari eta jardueri buruz.

Beraz, udaletxeek gardentasun-maila on bat lortu nahi izanez gero, aurretiaz aipatutako sei gai edo atalak bete beharko dituzte: dokumentuak kudeatzeko eta ezabatzeko politikak, goi-kargudunei ezagututako jarduera pribatuekiko bateragarritasuna, salaketa-kanalak izatea, kontuen argitalpenari buruzko txostena egitea Kontuen Epaitegiaren Plataforman eta txosten hauen argitalpena eta udal taldeen esleipenak.

6. JARRAITUTAKO METODOLOGIA

Lan honetan, udaletxe baten gardentasuna aztertu nahi denez, gardentasunaren barruan barneratzen diren kontzeptu ezberdinak azaldu behar dira; besteak beste, “Open Government”, “Open Data” eta “Open Government Data”, eta baita publizitate aktiboa eta pasiboa ere. Azken hauek azaltzea garrantzitsua da, baliabide publikoen iraunkortasuna eta erabilera eraginkorra

sustatzen dituztenez, informazioa eskuratzeko eskubideak ustiatzen dituztelako. Horrez gain, udal-eremuetan garrantzitsuak diren gardentasunari buruzko Europako, Espainiako eta autonomia-erkidegoetako lege ezberdinak aztertu dira, Bizkaiko udaletxeek kontuan izan behar duten arau edo legeetan oinarrituz.

Ildo horretatik, Bermeoko Udalaren gardentasuna aztertzeko bi metodo erabili dira; besteak beste, UGI eta Dyntra, analisiak banan-banan eginda. Metodologia bi hauen funtzioa, udal-korporazioari, herritarren partaidetzari, informazio ekonomiko-finantzarioari, hirigintzari... buruzko adierazleak udalaren informazioarekin alderatzea da.

UGI-ri dagokionez, sei arlotan banatutako 80 adierazleen zerrendan (*Eranskina I*) oinarritzen da eta Bermeoko Udalaren web guneko Gardentasunaren Atarian argitaratutako informazioarekin alderatu dira, gardentasun-mailaren analisia burutzeko. Horrela, aldagai bakoitzak balio bat hartzen du, erakundearen gai bati buruzko informazioa agertzen denaren edo ez denaren arabera; hau da, informazio osoa agertuz gero, puntuazioa 1koa da; partzialki agertuz gero edota datuak eguneratu barik badaude 0,1tik 0,9rako puntuazioa; eta azkenik, ez bada agertzen 0koa. Horretarako, sei arloen hurrengo sailkapena jarraituko eta aztertuko da:

- A. Gardentasun aktiboa eta udal-korporazioari buruzko informazioa.
- B. Web gunea, herritarrekin harremana eta hauen partaidetza.
- C. Gardentasun ekonomiko-finantzarioa.
- D. Zerbitzuen kontratazioen, hitzarmenen eta diru-laguntzen gardentasuna.
- E. Hirigintzaren, herri-lanen eta ingurumenaren gardentasuna.
- F. Informazioa eskuratzeko eskubidea.

Behin analisia eginda, Bermeoko Udalaren gardentasun-maila total estimatua kalkulatu eta ondorioak aterako dira.. Guzti honekin, udalaren informazioaren eta kulturaren sustapena bultzatzen da; izan ere, UGI-k eskatutako informazioa udalen web guneetan sartzeko aukera eskaintzen duelako, eta horrek, UGI-n puntuazioak hobetzeaz gain, herritarrei eskainitako informazio-maila handitzen laguntzen du.

Bigarren analisia, Dyntra plataformarekin egingo da. Hemen, 80 adierazle aztertu beharrean, 162 behatuko dira. Kasu honetan, betetzen den edo ez baloratu behar da, adierazle bakoitza zein neurritan betetzen den zehaztu gabe. Bermeoko Udalaren kasuan, DAM⁵ indizea

⁵ Dyntra Ayuntamientos y Municipios (DAM):15.000 biztanletik gorako udal eta udalerriez arduratzen den indize dinamikoa da.

erabili da, 15.000 biztanle baino gehiago daudelako; adierazleak zenbateraino betetzen diren adieraziz eta autonomia erkidegoan eta probintzian gardentasunaren sailkapenarekin lotuz. Hau guztia dela eta, hurrengo sailkapena eduki da kontuan (*Eranskina II*):

- Udal-gardentasuna (65 adierazle).
- Herritarren partaidetza eta lankidetzak (33 adierazle).
- Gardentasun ekonomiko-finantzarioa (27 adierazle).
- Zerbitzuen kontratazioak (16 adierazle).
- Hirigintza eta obra publikoa (20 adierazle).
- Open Data (2 adierazle).


Ikusten den bezala, adierazle berri bat aztertu da bigarren analisi honetan; hain zuzen, Open Data. Eta adierazle guzti hauek aztertu ostean, UGIrekin egin den bezala, gardentasun-maila totala kalkulatu da, Bermeoko Udala gardena bada edo ez jakiteko.

Amaitzeko, analisi biak egin ostean, Bermeoko Udalaren gardentasunaren ondorioak atera dira. Gainera, analisi bietan ateratako emaitzak konparatu dira, metodo biak ebaluatuz eta emaitza egokiena aukeratuz, aukeraketa honen zergatiak azalduz. Azkenik, azterketa osatzeko, Bermeoko herritarrei eginiko galdetegi bat aurkeztuko da, herritarrek benetan duten gardentasunari buruzko informazioa edo iritzi ezberdinak ezagutzeko, eta laneko analisiekin lortutako emaitzak bat datozen ikusi ahal izateko.

7. BERMEO ETA UDALETXEAREN AURKEZPENA

Bermeo, Euskal Autonomia Erkidegoko Busturialdeko udalerririk bizkaitar eta itsas tradizioari lotutako herri txikia da; bere ekonomia arrantzan eta arrain-kontserbetan oinarritzen dena. Beraz, ekonomiari dagokionez, Bermeoko portua izan da diru-iturri nagusia. Horrez gain, Bizkaiko Buruaren titulua jaso zuenez, Bizkaiko Batzar Nagusietan zenbait pribilegio ditu.

Biztanleriari dagokionez, INEk argitaratutako datuen arabera, Bermeok 16.864 biztanle izan zituen 2020. urtean. *Grafikoa 3*-n agertzen den bezala, herrian ez dago oso biztanleri-kopuru handia, baina urteak igaro ahala goranzko joera izaten ari da berriro ere.



Grafikoa 3: Bermeoko biztanleriaren eboluzioa. Elaborazio propioa. <https://www.ine.es> -tik lortutako datuak.

Hazkunde honen arrazoiak desberdinak izan dira; esate baterako, kulturaren aberastea. Nahiz eta ekonomia nagusiki arrantzan zentratu, kultura bultzatzeko zenbait gune eta ekimen⁶ daude herrian, ideia berritzaileak proposatzen direlarik. Bestalde, gardentasunari begira, zenbat eta biztanleri gehiago egon, udalaren aldetik, orduan eta gardentasun handiagoa edukitzea da egokiena; hain zuzen, lan honetan aztertuko dena. Horretarako, Bermeoko Udalak, 19/2013 Legea, abenduaren 9koa⁷, Informazio Publikoa eskuratzeko bideari, Gardentasunari eta gobernu onari buruzkoa; 2015eko azaroaren 20an publikatu zen Euskal Sektore Publikoaren Gardentasunaren, parte hartzearen eta Gobernu Onaren lege-aurreproiektua⁸ eta Bizkaiko 1/2016 Legea, otsailak 17koa, Gardentasunari buruzko Foru Araua⁹ erabili ditu.

7.1 BERMEOKO UDALETXEAREN GARDENTASUN-ATARIA

Bermeoko Udaleko web orrialde ofizialera sartuz gero, ez da udaletxeari buruzko informazioa bakarrik agertzen, baizik eta herriko berriak; adibidez, turismoari, zerbitzuei... buruzkoak. Baina, hurrengo irudian erakusten den bezala, gardentasunari buruzko gaiaren

⁶ Ekimen desberdinak burutzen dira herrian; hurrengo web orrialdean adibideak agertzen direlarik: <http://www.bermeo.eus/1459.html>.

⁷ 19/2013 Legea, abenduaren 9koa, Informazio Publikoa eskuratzeko bideari, Gardentasunari eta gobernu onari buruzkoa. Eskuragarri hurrengo estekan: <https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-2013-12887>.

⁸ 2015eko azaroaren 20an publikatu zen Euskal Sektore Publikoaren Gardentasunaren, parte hartzearen eta Gobernu Onaren lege-aurreproiektua. Eskuragarri hurrengo estekan: https://www.euskadi.eus/web01-tramite/es/contenidos/informacion_publica/inf_dncg_ley_64397_2015_02/eu_def/index.shtml.

⁹ Bizkaiko 1/2016 Legea, otsailak 17koa, Gardentasunari buruzko Foru Araua. Eskuragarri hurrengo estekan: <https://gardentasuna.bizkaia.eus/documents/1261696/4897954/01+02+NF+1-2016+eusk.pdf/81c26a56-4a39-966a-f13a-b331b6bcbae5?t=1573046255153>.

barruan bost atal ezberdin daude: “Zer da?”, “Udal ikuspegia”, “Etorkizunari begira”, “Atariari buruz” eta “Atarira sartu”.

Gardentasuna

Sarrera » Gardentasuna



Irudia 3: Bermeoko Udalako gardentasunaren atala. <http://www.bermeo.eus/index.html> -tik lortuta.

Ondorioz, herritarrentzat, momentuz, datuak eskuragarri daudela esan daiteke. Horretarako “Atarira sartu”-ren barruan, atal ezberdinak agertzen dira; adibidez, herritarren eta gizartearen arteko harremanak, Udal Korporazioari buruzkoa, gardentasun ekonomiko-finantzarioari buruzkoa etab.

8. ANALISIAREN GARAPENA ETA EMAITZAK

8.1 UDALETXEEN GARDENTASUNAREN INDIZEA (UGI): BERMEOKO UDALA

Analisi hau sei multzo desberdinetan banatzen da, atal bakoitzean dauden adierazleak Bermeoko Udaleko web orrialdean dagoen gardentasunaren atarian barneratu eta aztertuko direlarik. Horrez gain, multzo bakoitzak puntuazio bat izango du, arrazoiak argudiatuz eta guzti horrekin, Bermeoko Udalak duen gardentasun-maila lortuz.


UDAL KORPORAZIOARI BURUZKO INFORMAZIOA ETA PUBLIZITATE AKTIBOA

Lehenengo multzoa (*Eranskina I-eko A atala*), gardentasun aktiboari eta herriko korporazioari buruzkoa da, eta kargu pertsonal eta hautsien gardentasun aktiboa, udalaren plangintza eta ondareari buruzko publizitate aktiboa, gobernu-organoak, txostenak eta ebazpen judizialak aztertzen dira. Atal honen puntuazio estimatu orokorra 14,7koa da (21 puntutatik). Kargu pertsonal eta hautsiei buruzko gardentasun aktiboari dagokionez, puntuazio estimatua nahiko baxua da; hain zuzen, 4,9koa (8 puntutik). Egia da, alkatearen eta zinegotzien datu

biografikoak, helbide elektronikoak, Organo deszentralizatueta, erakunde instrumentaletako eta udal sozietateetako lanpostuen zerrendak agertzen direla, baina beste atal batzuk aurkitzeko zailak dira edo ez dira agertzen; esate baterako, goi-kargudunen Jardueren eta Ondasunen Interesen Erregistroa.

Hortik aparte, antolaketari eta ondareari buruzko gardentasuna egokiagoa da, 4,5eko puntuazio estimatua lortuz (6 puntutik). Organigrama eguneratuaren, antolakuntza-egituraren, ibilgailu ofizialen zerrenda, gobernu-organoen arduradunen eta haien funtzioen, informazioa eskaintzen da; beraz, herritarrek udalaren planak ezagutzen dituzte. Ostera, beste zenbait datu ez daude eskuragarri; adibidez, udalaren dokumentuak eta artxiboak kudeatzeko, kontserbatzeko eta ezabatzeko politika edo modua. Beraz, gardentasun osoa lortzeko, argitaratu beharreko dokumentu horiek herritarren esku jartzea beharrezkoa da.


Lehenengo multzo honekin amaitzeko, Bermeoko Udaleko gobernu-organoei, txosten eta ebazpen judizialei buruzko gardentasun-maila aztertuko da. Atal honek, 5,3ko puntuazio estimatua du (7 puntutik); hau da, akta osoak, gai zerrenda osoak, Gobernu Batzarren erabaki osoak eta udalari eragiten dioten ebazpen judizialak agertzen dira gardentasunaren atarian, baina gardentasun osoa lortzeko, bateragarritasuna onartzeko ebazpenak eta jarduera pribatuan aritzeko baimenak falta dira. Hala ere, atal hau agertu ezean, puntuatzen ez den atala denez, ez du garrantzia handirik; beraz, arrazoi horrengatik, adierazle hauetan udala gardena da. Guzti hau kontuan izanik, hurrengo grafikoan Bermeoko Udalak, herritarrentzat eskaintzen duen gardentasun aktiboari eta udal-korporazioari buruzko informazioaren emaitzen ehunekoak laburbiltzen dira:



Grafikoa 4: Apartatu bakoitzak Bermeoko Udaleko gardentasunaren atarian duen agerpena. Elaborazio propioa. <http://www.bermeo.eus/index.html> -ko informazioa oinarri hartuta.

WEB ORRIALDEA, HERRITARREKIN HARREMANA ETA HERRITAREN PARTAIDETZA

Bigarren multzoan (*Eranskina II-ko B. atala*), Bermeoko Udaleko web orrialdean agertzen den informazioan, herritarrekin dagoen harremanetan eta herritarrek duten parte-hartzean zentratuko gara. Multzo honen puntuazio totala 15 puntukoa da, eta egindako estimazioa 13 puntukoa, non lehenengo atalean 7 puntukoa da (8 puntutik), eta bigarreanean 6 puntukoa (7 puntutik).



Grafikoa 5: Apartatu bakoitzak Bermeoko Udaleko gardentasunaren atarian duen agerpena. Elaborazio propioa. <http://www.bermeo.eus/index.html> -ko informazioa oinarri hartuta.


Hau kontuan hartuz, Bermeoko Udalak adierazle ia denak betetzen dituela esan daiteke; betetzen direnen artean, web orrialdekoak eta herritarren partaidetzari buruzkoak izanik. Ondorioz, lehenago aztertutakoarekin bat, herritarrek plan desberdinen berri dute eta horrela, herritarrak udalaren erabakietan barneratuta sentitzen dira, bien arteko harremana eta lankidetzaren indartuz. Gainera, harremana areagotzen laguntzen dituzten foroak eskaintzen dira (modu presentzialean edo ez presentzialean), edozein iradokizun edo kexa azaltzeko.

Horrez gain, prozesu administratiboan eta herriko zerbitzuen katalogoak eskuragarri daude herritarrentzat, eta udalaren sare sozialetako presentzia ere adierazgarria da, Bermeoko Udalak Facebook eta Twitter bitartez, herrian gertatzen diren berri ezberdinak konpartitzen dituelako. Multzo honekin amaitzeko, web gunean, herritarrek plan ekonomikoak egiteko bideei eta politikari buruzko informazioa (udal aurrekontuak) ematen da.

GARDENTASUN EKONOMIKO-FINANTZARIOA

Hurrengo multzoa (*Eranskina I-eko C. atala*), bi zatitan banatuta dagoen gardentasun ekonomiko-finantzarioari buruzkoa da; alde batetik, kontabilitate eta aurrekontuen informazioa

azaltzen da; eta bestetik, sarrerren, gastuen eta zorren informazioa, non puntuazio estimatu orokorra 6,6 puntukoa da (11 puntutik). Grafiko honetan, kontabilitateko eta aurrekontuen informazioaren laburpena dago, atal bakoitzak Bermeoko Udaleko gardentasunaren atarian duen itxura aztertzen delarik:



Grafikoa 6: Apartatu bakoitzak Bermeoko Udaleko gardentasunaren atarian duen agerpena. Elaborazio propioa. <http://www.bermeo.eus/index.html> -ko informazioa oinarri hartuta.

Kontabilitateko eta aurrekontuen informazioen atalak 3,5eko puntuazio estimatua du (6 puntutik); batez ere, datu edo dokumentu askok eguneratzeko beharra dutelako (2019. urtea da azkena), eta hauen artean, aurrekontuen aldaketak, autonomia fiskalaren finantza-adierazleak eta finantzazio-ahalmenaren edo beharren finantza-adierazleak daude.

C. atal honetan, bigarren zati bat dago: sarreretako, gastuetako eta zorretako gardentasuna, 3,1 puntukoa (5 puntutik). Kasu honetan, herritarrek eskuragarri dituzten dokumentu bakarrak *Udal zor publiko bateratuaren zenbatekoak eta aurreko ekitaldiekin alderatutako bilakaera, biztanleko zerga-sarrerak eta inbertsioak* dira. Baina, azken hauen datuak ez daude eguneratuta, 2019ko datuak agertzen direlako. Hori dela eta, herritarrentzat susmagarria izan daiteke Urteko Kontuak eskuragarri ez egotea; beraz, herriak udalarengan gutxieneko konfiantza bat mantentzeko, dokumentuak argitaratzea komenigarria da; beti ere, eguneratuak daudenean.


Hau guztia dela eta, C. atalaren puntuazio orokor estimatua %60koa denez, herritarrentzat informazio ekonomiko-finantzarioari buruzko datuak eskasak direla esan daiteke. Kasu honetan, herritarren aldetik mesfidantza sor daiteke, ez dagoelako argi Bermeoko Udalak analisi ekonomiko-finantzarioak egiteko aintzat hartutako datuak noizkoak diren, dokumentu gehienak

eguneratu gabe daudelako. Gainera, informazio ekonomiko-finantzario egokia eskainiko balitz, finantza jardueraren kontrol bat egongo litzateke, gardentasuna sustatuz, non hiru alderdi nagusi egongo dira:

1. Kudeaketari aplikatu beharreko araudia betetzen dela egiaztatu.
2. Eragiketak edo inbertsioak behar bezala kontabilizatzen direla egiaztatu.
3. Kudeaketa finantzario onaren printzipioen arabera egiten direla ebaluatu.

KONTRATAZIOEN, SUBENTZIOEN ETA ZERBITZUEN KOSTUEN GARDENTASUNA

Analisiarekin jarraituz, kontratazioen, hitzarmenen, diru-laguntzen eta zerbitzuen kostuen gardentasun-maila aztertuko da (*Eranskina I-eko D atala*). Atal honen puntuazio estimatu orokorra 7,8koa da 12 puntu posibletatik, eta hurrengo grafikoan puntu hauek atal ezberdinetan nola banatzen diren ikus daiteke:



Grafikoa 7: Apartatu bakoitzak Bermeoko Udaleko gardentasunaren atarian duen agerpena. Elaborazio propioa. <http://www.bermeo.eus/index.html> -ko informazioa oinarri hartuta.

Kontratazioei dagokienez, udala ez da oso gardena, gardentasun-maila estimatua 4,8koa delako (7 puntutik). Hala ere, modu oso argi batean argitaratzen diren dokumentuak daude; besteak beste, udalak egiten dituen kontratuak. Gainera, kontratazio-mahaien aktak eta sektore publikoko kontratuen legerian aurreikusitako prozedura bakoitzaren bidez esleitutako kontratuen aurrekontu bolumenaren datu estatistikoak ere argitaratzen dira. Baina hauen arazoa eguneratu gabe daudela da; dokumentu hauek 2017. eta 2018. urtekoak direlako. Beraz, Bermeoko Udala kontratuei buruzko gaietan gardenagoa izan dadin, udalaren kontratuetan gerta daitezkeen aldaketak erakustea interesgarria izango litzateke.


Aipatutako kontratu horietan dauden hitzarmenak eta kudeaketa-mandatuen zerrendak argitaratzen dira, alderdi sinatzaileak, xedea eta hitzartutako betebeharrak ekonomikoak adieraziz. Baina, Bermeoko Udalak, subentzioen eta laguntza publikoen zerrenda zehaztu arren, oso zaila da bilatzea eta udaleko talde politiko bakoitzari ematen zaizkion diru-kopuruak ez dira agertzen. Beraz, subentzioei buruzko informazioa argiago jarri beharko litzateke, azken finean, subentzioak jarduera finantzarioaren atal garrantzitsua direlako herritarren zein sektore publikoen eskaera sozial eta ekonomikoari aurre egiteko.

HIRIGINTZAN, OBRA PUBLIKOETAN ETA INGURUMENEAN GARDENTASUNA

Hirigintza, herri lan eta ingurumen arloetako gardentasunari buruzko beste multzo honetan, gai desberdinak oso modu erraz batean aurkitzen dira. Horregatik, *Eranskina I*-eko *E atalean* dagoen moduan, herritarren aurreko gardentasuna ia osoa da (11,6 puntu 12 puntu posibleetatik), hiri-antolamenduko planak eta hirigintza-hitzarmenak, herri-lanen lizitazioei buruzko informazioa eta hirigintza eta azpiegitura-obrei buruzko informazioa herritarren esku daudelako. Hala ere, azpiegituretako inbertsioaren eta hirigintzaren diru-sarreraren proportzioaren adierazleak eguneratu barik daude. Eta amaitzeko, Bermeoko herritarrak, hirigintzari, herriko lanei eta ingurumen arloei buruzko informazioa dutenez, beraien parte-hartzea nahiko handia dela esan daiteke; esate baterako, herrian ingurumena zaintzeko ekintzak daudenez, herritarrak parte hartzeko aukera dute.

INFORMAZIOAREN SARBIDERAKO ESKUBIDEA

Analisi honekin amaitzeko, Bermeoko herritarrek informazioa eskuratzeko duten eskubidea aztertuko da (*Eranskina I*-eko *F atala*), eta honen puntuazio estimatu orokorra 3,5ekoa da (9 puntutik).



Grafikoa 8: Apartatu bakoitzak Bermeoko Udaleko gardentasunaren atarian duen agerpena. Elaborazio propioa. <http://www.bermeo.eus/index.html> -ko informazioa oinarri hartuta.

Eskubide hori edukitzeko, herritar bakoitzak web orrialdeko zenbait datu bete behar ditu, baina udalaren web orrialdeak edo gardentasun-atariak, ez du informazioa eskuratzeko eskubidea zabaltzeko eta administrazio-prozedura honen sarbidea argi eta garbi identifikatzeko gune nabarmenik. Gainera, ez dago informazioa eskuratzeari buruzko kexak edo iradokizunak jartzeko ataririk, eta honekin batera, informazioa eskuratzeko eskubidea osorik edo hein batean ukatzeagatik erreklamazioak aurkezteko baldintzak eta prozedura ez dira modu erraz batean aurkitzen.

Hau guztia dela eta, herritarrek informazio publikoa eskuratzeko duten eskubidearen puntuazio estimatua 2,8koa da (6 puntutik). Ikusten den moduan, puntuazioak nahiko baxuak dira. Beraz, herritarrek informazio publikoa lortzeko datuak bete arte, ez da argi agertzen bakoitzak izango dituen baldintzak edota zein modutan lortuko den informazioa. Amaitzeko, erreklamazioak eta informazio publikoa eskuratzeko eskubidearen ebaluazioaren puntuazio estimatua 0,7koa da (3 puntutik). Honekin, herritarrek ez dute informazioa lortzeko eskubide nahikorik, edota behintzat, ez da herritarrek ulertzeko era batean azaltzen. Beraz, multzo honen ehuneko estimatua %38,89ekoa da.

ANALISI OROKORRA

Behin irizpide edo adierazle denak aztertu ondoren, *Eranskinak IIII*-ean Bermeoko Udalak gardentasunean dituen balio edo estimazioak agertzen dira. Hasteko, Bermeoko Udalak hirigintzari, obra publikoei eta ingurumenari buruzko informazioa du herritarren esku, atal hau denetatik gardenena izanik (%96,67ko gardentasun-maila estimatua); beraz, herritarrek berri hauen guztien egunean daude. Honen arrazoi bat, web orrialdeko eta herritarrekin duten harremaneko gardentasuna da, %86,67koa delako. Horrela, herritarren partaidetza eta lankidetzatza handitzen doa, erabakietan parte hartzeko eta berriak ezagutzeko aukera dutelako.

Beste gai batzuei buruzko informazioa eskasa da, baina herritarren artean baliteke askorik ez nabaritzea, falta den informazioan ez dutelako parte-hartzeko aukerarik. Hala ere, datuak eta informazioa beraien esku egotea komenigarria da, herritarren ongizateak ere ezinbesteko garrantzia duelako. *Eranskina IIII*-an ikusten den bezala, hauen artean gardentasun ekonomiko-finantzarioa, subentzioen eta hitzarmenen gardentasuna dira eta informazio publikoa lortzeko sarbidea dira; azken hau, larriena izanik, informazio publikoa eskuratzeko eskubidea egon arren, hura lortzeko zailtasunak daudelako. Ondorioz, Bermeoko Udalaren gardentasun-maila estimatu totala hurrengoa da:

ANALISIAREN GARAPENA ETA EMAITZAK


AZTERTUTAKO INDIZEAK	PUNTUAZIO ESTIMATUA	PUNTUAZIO TOTAL ESTIMATUEN EHUNEKOA
Publizitate aktiboa eta udal-korporazioaren informazioa (21)	14,7	18,38%
Web orrialdea, herritarrekin harremana eta herritarren partaidetza (15)	13	16,25%
Gardentasun ekonomiko-finantzarioa (11)	6,6	8,25%
Kontratazioen, hitzarmenen, subentzioen eta zerbitzuen kostuen gardentasuna (12)	7,8	9,75%
Hirigintzaren, obra publikoen eta ingurumenaren gardentasun (12)	11,6	14,50%
Informazio publikoaren sarbiderako eskubidea (9)	3,5	4,38%
GUZTIRA	57,2	71,50%

Taula 1: ITA bidez eginiko analisiaren datuak erabiliz, Bermeoko Udalaren gardentasun-maila total estimatuaren kalkulua. Excel bidez eginiko elaborazio propioa.

Goiko taula honetan, aztertu diren 80 indizeen gain Bermeoko Udalak duen gardentasun-maila estimatu totala %71,50 dela ikusten da. Honekin, gardentasun-maila hobea izan dezakeela ondoriozta daiteke, baina urteak igaro ahala, Udala gero eta gardenagoa da. Hala ere, balorazio hau ez da guztiz objektiboa, %71,50ko gardentasun-maila balorazio pertsonalagoa delako. Hori dela eta, UGIrekin emaitzak subjektiboak dira, norberak jartzen duelako adierazleen betetze-maila. Analisia Dyntra plataformarekin eginez gero, emaitzak objektiboagoak dira, adierazle bakoitzari ez zaielako puntuazio pertsonal bat jartzen.

8.2 DYNTRA

Dyntra analisi honek, Bermeoko Udalaren gardentasun-maila neurtzen du, eta honekin, Udalaren gardentasun-maila %57,06koa (*Eranskina III*) dela ondorioztatu da. Horregatik, Dyntraren estandarrei buruzko “Gardentasun gainditua” lortzen duela esan daiteke. Hortik aparte, udala nahiko gardena da hirigintzari eta herri-lanei buruzko informazioarekin, gardentasun-maila %80ekoa delako, eta badaude beste gai batzuk nahiko gardenak direnak ere; hain zuzen, herritarren partaidetza eta lankidetzatza, zerbitzuen kontratazioa eta gardentasun ekonomiko-finantzarioa.



Grafikoa 9: Dyntra adierazleekin egindako Bermeoko Udalaren gardentasun-mailaren neurketaren emaitzak. <http://www.bermeo.eus/index.html> -tik hartutako datuak. Elaborazio propioa.

Alde batetik, *Grafikoa 9*-an dagoen moduan, zerbitzuen kontratazioaren gardentasun-maila %68,75ekoa da, zerbitzuen kontratazioarako prozedurak; hornitzaile eta kontratistekiko harremanak; eragiketak eta kontratuak, hitzarmenak eta diru-laguntzak aztertzen direlarik. Nahiz eta zerbitzuak kontratatzeke prozedurak eta hornitzaileak eta kontratistekiko harremanak eta eragiketak puntuazioa oso lortu, kontratuei, hitzarmenei eta diru-laguntzei buruzko informazioaren gardentasuna (*Eranskina II*-ko *D. atala*) %54,55ekoa da, eta honek, atalaren batz besteko estimazioa jaisten du; hain zuzen, udalak sinatutako administrazio emakidak, publizitate instituzionaletarako inbertitutako gastu publikoa, kontratazio publikoa arautzen duen legeria... ez daudelako herritarren esku.

Bestetik, udalak herritarren partaidetzan eta lankidetzan (*Eranskina II*-ko *B. atala*) %66,67ko gardentasuna duela ondorioztatu da. Kasu honetan, herritarrei eskaintzen zaien informazioa eta arreta egokiak dira (%81,82), herrian eskaintzen diren zerbitzu ezberdinen ordutegiak eta datu garrantzitsuak adierazten direlako, herriko arazo edo intzidentzia ezberdinen berri ematen delako web gunean eta kexa edo iradokizunetarako foroak daudelako. Baina, Bermeoko Udalak informazioarako sarbide unibertsala eskaintzea ondo legoke gardentasun osoz jokatzeko. Atal berean, konpromiso-mailaren gardentasuna %59,09koa da, eta partaidetza eta lankidetzaren ehunekoa jaisten duen atala da, nahiz eta udalaren Plan Estrategikoa, herritarren partaidetzaren arauak, kontseilu sozialak eta zerbitzuen gutunak argitaratu, zenbait atal garrantzitsu ez daudelako herritarren esku; adibidez, herritarrentzat online bidezko arreta-bulego bat edota intzidentzien ebazpenari buruzko informazioa egotea.

“Gardentasun gaiturua” duten adierazleekin amaitzeko, gardentasun ekonomiko-finantzarioa aztertuko da. Azken honen gardentasun-maila, *Grafikoa 9*-an adierazten den

bezala, %51,85ekoa da, baina nahiz eta ehunekoa hori izan, analisisian nabaritu da eskaintzen den informazioa ez dela hain eskasa. Herritarrek kontabilitateari eta aurrekontuei buruzko ia informazio guztia dute; adibidez, biztanleko superabita edo defizita, autonomia fiskalaren adierazlea, aurrekontuen aldaketak... Gainera, udalak diru-sarreraren eta gastuen informazioa eskaintzen du (diru-sarrera fiskalena, biztanleko gastuak eta inbertsioak, ordaintzeko eta kobratzeko batz besteko epea). Baina informazio hau osoa izateko, Bermeoko Udalak udal-zorretako eta aurrekontuen gardentasun-maila handitu beharra dauka.

Aurrekontuen informazioari dagokionez, *Eranskina II*-ko *C. ataleko* datuak kalkulatu ostean, gardentasun-maila %23,08koa da; beraz, ez da “Gardentasunaren gaiturua” betetzen, nahiz eta aurrekontuak argitaratuta egon, hauen onspena, egonkortasunaren txostena eta memoria ez daude eskuragarri herritarrentzat. Hasteko, udaletxearen web gunean ez daude Urteko Kontuak argitaratuta (Balantzea, ondare emaitzen kontua, memoria eta aurrekontuen likidazioa), ezta kontsolidazio-egoera ere ez. Gainera, lehenago esan bezala, diru-sarrerei eta gastuei buruzko informazioa modu partzialean eskaintzen da, sarrera eta gastuen egoera-orriak ez daudelako eskuragarri. Eta azkenik, ez da gardentasun ekonomiko-finantzarioaren bisorerik¹⁰ agertzen.

Dyntra analisiarekin amaitzeko, estandarrak adierazten duten “Gardentasun gaiturua” betetzen ez duten adierazleak komentatuko dira; besteak beste, Open Data eta udal-gardentasuna. Open Datari (*Eranskina II*-ko *F. atala*) dagokionez, ez dago inolako gardentasunik, nagusiki, datuak ez daudelako formatu ireki batean. Eta azkenik, udal-gardentasunak %46,15 lortzen du. Adierazle honetan, hautsien (%42,42), udal arau eta erakundeen (%45,45) eta plangintza eta antolamenduen (%27,27) argitalpena sustatu beharko litzateke, informazioa nahiko eskasa delako herritarrentzat.

¹⁰ Bisorearen definizioa hurrengoa da: herritarrek legealdian hauteskunde- eta/edo gobernu-konpromisoak zenbateraino bete diren jakiteko tresna da.

9. ONDORIOAK.

Egun, gardentasunak garrantzi handia du, baina honek ez du esan nahi informazioa denon eskuetan edukitzea posible denik; oraindik gardentasunaren osotasuna lortzeko bide luzea gelditzen baita. Gainera, gardentasunaren garrantziaren hazkundearekin batera, onurak eta desabantailak egon dira bai erakundeetan eta bai herritarrentzat. Hasteko, informazio gehiena denon esku dagoenez, botere-abusuak eta jokabide desegokiak murriztu egin dira, herritarren partaidetzak eta lankidetzak gora eginez. Horrela, pertsonen iritzien osotasuna eta eraginkortasuna sustatzeko aukera egon da, erabaki egokiak hartzeko aukera berriak dituztelako. Baina erakundeek gardentasun hori edukitzeko inbertitu egin behar dute, kostu handiagoak eragiten dituelarik eta honek eragin ditzakeen arriskua bereganatuz. Gainera, udalaren aldetik, informazioa erakusteak ezagutza eta erantzukizun handiagoa eskatzen du.

Lan honetan bi metodo desberdinekin burutu diren analisiak daude. Horregatik, ondorioak bi analisisiei buruzkoak izango dira, beraien arteko konparaketak argudiatuz.

UGIren analisia kontuan hartuz, Bermeko Udalaren gardentasun-maila estimatua %71,50 (*Taula 1*) da. Hori dela eta, herritarrek erabakiak hartzeko edo zenbait datu eskura izateko aukera dutela esan daiteke. Beste modu batean esanda, informazio publikoaren gardentasun-maila egokia izateak, lanaren hasieran azaldutako onurak gozatzeko aukera dute herritarrek. Horregatik, "Open Government" osatzen duten partaidetza, gardentasuna eta lankidetzak presente daude herri honetan.

Analisian, udal-korporazioko, web orrialdeko eta hirigintzari, obra publikoei eta ingurumenari buruzko informazioan gardentasun gehiena azaltzen dela ondorioztatu da. Horretarako, herrian ekintza eta ekimen ezberdinak burutzen dira; esate baterako, ingurumenaren zaintzaren alde, inguruko hondartzen edo Aritzatxuren garbitasuna, azken honek ISO9001 eta ISO14001 arauen arabeko kalitate eta ingurumen kudeaketa sistemak ezarrita dituelarik.

Horrela, udalak daramatzan planak (ekonomikoak zein politikoak), organigramak eta egitarau ezberdinen antolamenduak daudenez, herritar moduan hartu beharreko erabakiak hartzeko aldagai nahikoak dituzte; hots, ez da alde zuzeneko irizpide garrantzitsurik gabe erabakirik hartu behar. Gainera, datu zein kontzeptu guztiak azaltzeko, gardentasunaren atari egoki bat aurkitzen da web orrialdean, udal-zerbitzuak, udal-ordutegiak, prozesu administratibo eguneratuak... batuz. Baina honen atalrik garrantzitsuenak, herritarren hurbiltasuna izateko eskaintzen den foroa da, Bermeoko Udaleko web orrialdean zein sare sozialetan edukirik.

Horrela, herritarrek dituzten edozein zalantza edo kexa ulertzeko aukera dago, eta honekin, udalak erabaki ezberdinak hartzeko ideiak izan ditzake, herritarren iritziak kontuan harturik.

Baina, UGIrekin Bermeoko Udalaren gardentasun-maila total estimatua %71,50koa denez, puntuazio hori jaisten duten arrazoiak daude. Herritarrekiko gardentasuna erakusteko, informazio publikorako sarbidearen eskubidea izatea oso garrantzitsua da, eta Bermeoko Udalak ez du modu egoki batean eskaintzen. Eskubide hau izateko derrigorrezkoa da altan ematea, baina bete beharreko datuak ez dira osoak; alegia, eskubide hori lortzeko ez da erraza datuak aurkitzea edota ez da autentifikazio elektronikoa arruntik eskatzen. Gainera, eskubidea osorik edo zati batean ukatzeagatik erreklamazioak aurkezteko baldintzak eta prozedura ez da modu erraz eta argian aurkezten udalaren webgunean.

Horrez gain, alde ekonomiko-finantzarioan ere informazioa nahiko eskasa da. Nahiz eta udalaren aurrekontu eguneratuak argitaratu, Urteko Kontuak (Balantzea, Ondare-emaitzaren kontua...) ez daude herritarren esku, eta gainera, Kontu Auzitegiaren Plataforman argitaratzen dituen web orrialdean ez da honen berririk ematen. Beraz, gardentasun ekonomiko-finantzarioa handitzea eta argitaratuta dauden dokumentuak, behintzat, eguneratzea funtsezkoa izango da. Baina, lehenago azaldu bezala, UGI-rekin ateratako ondorioek subjektibotasun puntu bat dute, bakoitzak modu batean edo bestean baloratu dezakelako aldagai berdin bat.

Analisi zehatzago bat egiteko, Dyntra plataforma erabiltzea komenigarriagoa da, adierazle hauek, 19/2013 Legea, abenduak 9koa, Gardentasunari, Informazio publikorako sarbideari eta gobernu onari buruzkoak dion argitaratu beharreko gutxieneko informazioa udalean agertzen den edo ez baloratzen delako; inolako puntuaziorik gabe. Modu honetan, informazioa edo datuak modu partzial batean agertzea gerta daiteke, baina Dyntrarekin azken hauek ez direla agertzen kontsideratzen da. Arrazoi honengatik, ateratako emaitza ez da errealia zentsu hertsiki batean, baina bai UGI baino errealagoa. Beste modu batean esanda, Dyntrari esker, adierazlea argitaratuta egon arren, modu eskas edo partzial batean argitaratuta badaude ez dira gardentasun-mailaren kalkuluan sartzen. Ostera, UGIrekin, puntu osoa ez bada ere, puntuazio bat jasotzen dute adierazle horiek.

Dyntrarekin jarraituz, Bermeoko Udalak %57,06ko gardentasun-maila duela aztertu denez, metodoen artean diferentzia dago; hain zuzen, %14,44koa. Honen arrazoi nagusienak, metodoen arteko zehaztasuna eta aztertutako adierazle kopurua dira, Dyntra zehatzagoa eta zorrotzagoa delako eta adierazle gehiago aztertzen direlako; besteak beste, 83 gehiago. Orduan, gardentasunaren ehunekoa txikiagoa emateak, Bermeoko Udalak herritarrentzat eskuragarri duen informazio publikoa nahikoa ez dela ondorioztatu da.

Analisiak laburbilduz, Bermeoko Udalak Open Datari ezinbesteko garrantzia eman behar dio, herritarren partaidetza hobetzeko, erabiltzaile informatuen komunitate bat sortzeko aukera ematen duelako. Horrela, herritarrek ideia eta iritzi gehiago partekatzeko eskubidea izango lukete, arazo eta erronka ezberdinei aurre eginez. Gainera, udal-korporazioari buruzko informazio eguneratu gehiago argitaratzea komenigarria izango litzateke Bermeoko Udalarentzat, datuak eguneratu barik edukitzeak ez duelako aurrerapenak izateko aukerarik eskaintzen; hau da, ez du zentzurik, ezin direlako erabaki egokiak hartu.

Ondorioak modu zehatzago batean aztertzeko, 18 urtetik goragoko Bermeoko herritarren artean udalaren gardentasunari buruzko galdetegi bat burutu da, iritziak bildu eta bakoitzak honi buruz duen ezagutza neurtzeko. Hasteko, parte hartzaileen (44 pertsona) %86,4ak udalaren web orrialdea bisitatu du noizbait, baina bisiten maiztasuna ez da hain ugaria, horietatik bik bakarrik maiztasun handiarekin bisitatzen dutelako. Hala ere, maiztasuna ugaria izan ez arren, webgunea bisitatu dutenek, zalantzak argitzeko egin dute. Horren ondorioz, udalak web orrialdeko informazioaren gardentasun-maila egokia du, eta esan daiteke herritarren aurrean, zalantzak argitzeko aukera dagoelako.

Udal-gardentasunaren kontzeptuari dagokionez, herrian ezaguna da; parte hartzaileen %72,7ak ezagutzen duelako. Ordea, %15,9ak ez du kontzeptu hau ezagutzen eta gainontzekoek (%11,4) ezagutu arren, ez dute ezagutza maila handirik. Horrekin batera, gardentasuna arautzen duen legeari buruzko galderak egin dira, eta honen ondorioa hurrengoa izan da: herritar gehienek, udal-gardentasuna ezagutu arren, ez dute hau arautzen duen legea ezagutzen (%61,4). Horregatik, legearen berri ematea eta honi buruzko informazioa eskaintzea interesgarria eta komenigarria izango litzateke, herritarrek ez dutelako ezagutzen zein den lege honek eskatzen duen gutxieneko informazioa.

Legea ezagutzen dutenen artean, lege horren helburuak zeintzuk izan daitezkeen galdetu da; adibidez, erakundeek kudeaketari buruzko informazioa eskaintzea, arazo eta baliabide publikoak nola kudeatzen diren jakitea, botere publikoak gizarteari hurbiltzea... Eta parte hartzaileen gehiengoa; hain zuzen, %72,7a, ados dago aipatutako guztiekin.

Amaitzeko, Bermeoko Udalak "Open Data"ri garrantzia eman behar izateaz aparte, %75ak herritarrekin dagoen harremana beti ez dagoela uste du; hau da, herritarren beharrak, edozein erabaki hartzerakoan, kritikak eta iritziak ez direla beti kontuan hartzen. Iritzi honen ondorioz, laneko analisisan ondorioztatutako gardentasun-mailaren eta herritarren batz besteko gardentasun-mailaren ehunekoa desberdina da; herritarrena baxuagoa (%52,86) izanik.

10. MUGAK ETA ETORKIZUNEN IKERKETA-ILDOAK

10.1 MUGAK

Lan honen muga garrantzitsuenak, aztertu beharreko indizeen aplikazioan egon dira, nagusia hurrengoak izanik:

- Indize edo adierazle batzuk eskatzen duten informazioa aurkitzea oso zaila edo ezinezkoa izan da. Hori dela eta, kasu hauetan nahiz eta informazioa argitaratuta egon, jarritako puntuazioa zero izan da, eta honek, emaitzetan ondorio negatiboa dauka, objetibotasuna eta zehaztasuna galtzen delako.

10.2 ETORKIZUNEN ILDOAK

Etorkizuneko ikerketa-ildo moduan, lan osagarrietan garatzeko oso interesgarriak izan zitezkeen alderdiak agertzen dira, geroago aztertu beharko direnak. Gainera, adieraziko diren ideien analisi bakoitza orain arte aurkeztu ez diren hainbat arazoren interpretazio edo konponbide berrien iturri izan daiteke. Hori dela eta, jarraian aurkeztuko diren bi ideietan ez dira guztiak sartuko:

- Bermeoko Udalarekin gardentasunari buruzkoa analisia egitea interesgarria izango litzateke, web orrialdeko aurkitzeko zailak diren datuak edo informazioa errazago bilatzeko. Horrela, azterketa ostean ondorioztatutako gardentasun-maila objektiboagoa izateko aukera egongo litzateke.
- Gardentasunaren arloan, urtero azterketa egiteko proposamena aurrera eramatea; hau da, urtero gardentasun-maila aztertzea, urteak igaro ahala, honen garapena ikusteko eta herritarrekin gardenagoak izateko.

11. BIBLIOGRAFIA

- Bermeoko Udala. (s.f.). *Bermeoko Udala*. Obtenido de Gardentasuna: <http://bermeo.eus/1444.html>
- Bizkaia Gardena. (s.f.). *Bizkaia Gardena*. Obtenido de <https://gardentasuna.bizkaia.eus/es/que-es-la-transparencia>
- Bizkaia Talent. (s.f.). *Bizkaia Talent*. Obtenido de El País Vasco obtiene “matrícula de honor” en transparencia de sus instituciones ocupando la primera posición en el Estado español: <https://www.bizkaia.talent.eus/paisvasco-matricula-transparencia-internacional/>
- Diputación Foral de Alava. (s.f.). *Irekia.araba.eus Portal de Gobierno abierto de la Diputación Foral de Álava*. Obtenido de <https://irekia.araba.eus/es/inicio>
- Dyntra. (s.f.). *Dynamic Transparency Index*. Obtenido de <https://www.dyntra.org/poi/ayuntamiento-de-bermeo/?prev=indices/ayuntamientos-de-espana/pais-vasco>
- EL SISTEMA INTERAMERICANO DE PROTECCIÓN DE LOS DERECHOS HUMANOS. (s.f.). Obtenido de <https://www.corteidh.or.cr/tablas/r34041.pdf>
- Gardena. (s.f.). *Gardena*. Obtenido de Transparencia del Gobierno Vasco: <https://www.gardena.euskadi.eus/inicio/>
- Gardena. (s.f.). *Gardena*. Obtenido de Transparencia: <https://www.gardena.euskadi.eus/transparencia/-/sobre-transparencia-en-el-gobierno-vasco/>
- Gipuzkoa Irekia. (s.f.). *Gipuzkoa Irekia*. Obtenido de <https://www.gipuzkoairekia.eus/es/gardentasuneko-katalogoa>
- Gobierno Abierto de Navarra. (s.f.). *Navarra.es*. Obtenido de Open Data y Reutilización de Información del Sector Público: <https://gobiernoabierto.navarra.es/es/open-data/que-es-open-data/open-data-y-risp>
- González, G. M. (2015). EL DERECHO DE ACCESO A LA INFORMACIÓN PÚBLICA EN LA LEY DE TRANSPARENCIA: UNA APROXIMACIÓN CONSTITUCIONAL. *Eunomía. Revista en Cultura de la Legalidad*, 93-125.
- Guichot, E. (2017). ¿Cuánto hemos avanzado en transparencia? *RET (Revista Española de la Transparencia)*, 24-30.

- Herrera, M. P. (2017). ESTUDIO COMPARADO SOBRE TRANSPARENCIA Y DERECHO DE ACCESO EN EL ÁMBITO INTERNACIONAL Y SU INFLUENCIA EN ESPAÑA. *Revista de derecho Vol. 6*, 123-153.
- Medina, J. L. (2017). ¿CÓMO SUPERAR CON ÉXITO EL ÍNDICE DE TRANSPARENCIA DE LOS AYUNTAMIENTOS (ITA) 2017? *Más poder local*, 26-27.
- Meizoso, G. B. (2020). El complejo marco jurídico de la Transparencia en Euskadi. Un enfoque divulgativo. *RET (Revista Española de la Transparencia)*, 293-308.
- Mora, L., Delgado, M., & A. Rivero, J. (2018). *Asociación Española de Ciencia Política e Investigación*. Obtenido de Influencia del marco normativo en la transparencia: análisis de los ayuntamientos españoles, 2014-2017: <https://recyt.fecyt.es/index.php/recp/article/view/61008>
- Morales, F. D. (2015). Tribuna Libre. *Revista Transparencia*, 24-30.
- Paz, E. C. (2013). Gobierno abierto y democracia participativa. *3 ciencias*, 2-12.
- Reina, E. G. (s.f.). *Transparencia y acceso a la información pública en España: análisis y propuestas legislativa*. Obtenido de Fundación alternativas: https://www.fundacionalternativas.org/public/storage/laboratorio_documentos_archivos/a1d04f2c5f4e94e441966c1b79f39fa3.pdf
- Transparency International España. (2017). *Transparency International España*. Obtenido de ÍNDICE DE TRANSPARENCIA DE LOS AYUNTAMIENTOS 2017 (80 indicadores): https://transparencia.org.es/wp-content/uploads/2017/02/cuadro_indicadores_ita-2017.pdf

*Excel bidez eginiko grafikoak eta taulak eskuragarri daude.

12. ERANSKINAK

- Eranskina I

	PUNTUAZIOA
A) GARDENTASUN AKTIBOA ETA UDAL KORPORAZIOARI BURUZKO INFORMAZIOA	70,00%
1) Udaleko karguei, langileei eta ordainsariei buruzko publizitate aktiboa (8)	4,9
1. Alkatearen eta Udaleko zinegotzien biografia-datuak, gutxienez haien izen-abizenak, kargua, egungoa, argazkia, aipamen biografikoa -lau lerro gutxienez bakoitza- edo CVa eta helbide elektronikoak zehaztuta.	1
2. Alkatearen agenda instituzionala, dagoeneko egin diren jarduerak eta laster egiteko programatutakoak zehaztuta (eguna, ordua, tokoa, jardueraren deskribapena eta parte-hartzaile nagusiak).	0
3. Alkatearen eta Udaleko gainerako hautetsien bidaiia-gastuak xeheki eta banan-banan argitaratzen dira.	0
4. Udaleko lanpostuen zerrenda, konfiantzako karguen (lanpostuak) edo behin-behineko langileen banakako zerrenda eta haien ordainsarien banakako edo taldeko zenbatekoa.	0,1
5. Organo deszentralizatu guztien, erakunde instrumentalen eta/edo udal-sozietateen oinarrizko datuak, haien helburu soziala zehatz-mehatz azalduta, bai eta haien webguneetarako estekak ere (Udalak erakunde horiek ez baditu, espresuki adieraziko da web-orrian, eta ez da puntuatuko aurkibidearen zati gisa).	1
6. Organo deszentralizatuetako, erakunde instrumentaletako eta udal sozietateetako lanpostuen zerrenda (LPZ) edo langileen plantillak, osorik, eta lanpostuen izenak eta haietan dauden konfiantzako karguen plazak adieraziko dira (Udalak erakunde horiek ez baditu, espresuki adieraziko da webgunean, eta ez da puntuatuko indizearen parte gisa).	1
7. Udaleko goi kargudunek (gutxienez, hautetsiek eta zuzendari nagusiek, halakorik bada) eta Udalak partaidetutako entitateetako arduradun nagusiek jasotzen dituzten ordainsariak.	1
8. Udaleko goi kargudunen Jardueren eta Ondasunen Interesen Erregistroa.	0,8

2) Udalaren plangintza, antolaketa eta ondareari buruzko publizitate aktiboa (6)	4,5
9. Urteko eta urte anitzeko planak eta programak (ik. g. helburu zehatzak finkatzen dituen Tokiko Agenda 21 eta/edo Plan edo Mapa Estrategikoa), helburu horiek lortzeko aurreikusitako jarduerak, baliabideak eta denbora, eta lortutako emaitzak edo helburuen lortze-maila.	0,5
10. Organigrama eguneratua, Udalaren antolakuntza-egitura ulertzeko eta gobernu-organoen arduradunak eta haien funtzioak identifikatzeko, Barrutiko Batzordeak edo auzoak barne, hala badagokio, harremanak ezagutzeko.	1
11. Udalaren dokumentuak eta artxiboak kudeatzeko, kontserbatzeko eta ezabatzeko politika edo modua argitaratzen da.	0
12. Higiezin zerrenda berrikusia eta/edo eguneratua argitaratzen da (bulegoak, lokalak, etab.), bai norberarenak, bai errentamendukoak, okupatuak eta/edo Udalari atxikiak, horietako bakoitzean dagokion erregimena adieraziz.	1
13. Udalari atxikitako ibilgailu ofizial guztien zerrenda zehatza (norberarenak, alokatuak edo lagatakoak), zerbitzu publikoetakoak barne.	1
14. Itxitako azken hiru ekitaldietako bakoitzean Udalak dituen ondasun eta eskubideen inbentario eguneratua.	1
3) Udaleko gobernu-organoei, txosten eta ebazpen judizialei buruzko publizitate aktiboa (7)	5,3
15. Badago eta argitaratzen da Udalaren Etika edo Gobernu Onaren Kodea (ahal dela, FEMPeko alderdi politikoek aho batez onetsitako Tokiko Gobernu Onaren Kode berrira egokitua).	0,8
16. Osoko bilkuren aurreko gai zerrendak.	1
17. Osoko bilkuren akta osoak.	1
18. Gobernu Batzarren erabaki osoak eta akta osoak, Osoko Bilkurak eskuordetuta jarduten dutenean.	1
19. Udalaren osoko bilkuretako audio-artxiboak (podcast-ak) edo bideoak.	0,5
20. Udalari eragiten dioten ebazpen judizialak (eduki osora lotuz) (auzi, lan eta abarren ingurukoak). (Halakorik ez bada, espresuki adieraziko da webgunean, eta ez da puntuatuko indizearen zati gisa)	1

21. Bateragarritasuna baimendu edo onartzeko ebazpenak eta goi kargudunei jarduera pribatua egiteko baimenak (halakorik ez bada, espresuki argitaratuko da webgunean).	0
B) WEB ORRIALDEA, HERRITARREKIKO ETA GIZARTEAREKIKO HARREMANAK, ETA HERRITARREN PARTE-HARTZEA (15)	86,67%
<i>1) Udalaren eta udal zerbitzuen web orria (8)</i>	7
22. Udalaren web orrian atal berezi bat ezarri da gardentasunaren arloan, edo Udalak gardentasunaren ataria du Udalaren web orriarekin lotuta.	1
23. Webguneak (eta, hala badagokio, Udalaren gardentasun-atariak) bilatzaile operatibo eta nabarmen bat du.	1
24. Web-aren (eta, hala badagokio, Udalaren gardentasun-atariaren) azalean web-mapa bat dago, eta, horri esker, leku bakar batean ikus daitezke bertan dauden edukien egitura eta hiperestekan dauden sarbideak.	1
25. Udal zerbitzuen katalogo orokorra argitaratzen da, bai eta kasuan kasuko erakundearen zerbitzu eta ekipamenduen egoitzak ere, helbidea, jendea hartzeko ordutegiak eta web orrietarako eta/edo posta elektronikoko helbideetarako estekak dituztenak.	1
26. Herritarren eskura dauden prozedura administratiboaren katalogo eguneratua argitaratzen da, haien xedea, tramiteak, epeak, isiltasun administratiboaren zentzua eta, hala badagokio, horrekin lotutako inprimakiak adieraziz, tramitazio elektronikoa izan dezaketenak.	1
27. Udal-zerbitzuen gutun bat/batzuk daude eta horien berri ematen da, bai eta gutunean ezarritako konpromisoak zenbateraino bete diren ere.	1
28. Herritarrentzako salaketan berriazko kanal bat dago eta iragartzen da.	0
29. Web-orrian (eta, hala badagokio, sare sozialen bidez) informazioa ematen da udal zerbitzuak ematean gaur egun gertatzen diren gorabeheri buruz.	1
<i>2) Herritarren parte-hartzea eta herritarrarentzat interesgarria den informazioa (7)</i>	6

30. Herritarrek edo erakundeek egindako kontsulta eta iradokizunei buruzko datu edo informazio estatistikoak argitaratzen dira webgunean.	0
31. Udaleko talde politikoek beren iritziak eta proposamenak azaltzeko gune bat dago webgunean.	1
32. Udalerriko bizilagunen elkarte eta entitateen direktorioa dago webgunean, eta elkarte horientzako espazio bat dago.	1
33. Web-orrian eztabaida-foroak daude, edo sare sozialetan udalaren profil aktiboak daude.	1
34. Herritarrek tokiko bizitza publikoko gaietan eraginkortasunez parte hartzeko prozedurak eta organoak ezartzen eta arautzen dituzten arauen multzoa dago eta web gunean argitaratzen da (Herritarren Partaidetzaren Erregelamendua eta/edo beste batzuk).	1
35. Udal-kontseiluei eta/edo herritarrek parte hartzeko beste bide batzuei buruzko informazioa dago webgunean.	1
36. Plan ekonomikoak, berariazko politikak eta/edo udal-aurrekontuak egiten herritarrek parte hartzeko bideak azaltzen ditu web guneak.	1

C) EKONOMIA- ETA FINANTZA-GARDENTASUNA (11)	60,00%
1) Kontabilitateari eta aurrekontuei buruzko informazioa (6)	3,5
37. Udalaren aurrekontuak, aurrekontuko kontusail nagusiak deskribatuta, eta aurrekontuaren gauzatze egoerari buruzko informazio eguneratua (hiru hilean behin).	1
38. Osoko Bilkurak edo Gobernu Batzordeak, alkateak edo zinegotzi delegatuak onetsitako aurrekontu aldaketak.	0,5
39. Organo deszentralizatuen, entitate instrumentalen eta udal sozietateen aurrekontuak (web orriko atal berezi batean); (Udalak erakunde horiek ez baditu, espresuki adieraziko da webgunean), eta ez du indizearen zati gisa puntuatuko.	1
40. Autonomia fiskalaren finantza-adierazlea: Zerga-sarreraren eskubide onartu garbiak / Onartutako eskubide garbiak guztira.	0,5

41. Finantzazio-ahalmenaren edo -beharraren finantza-adierazlea, aurrekontu-egonkortasunari dagokionez (superabita edo defizita)	0,5
42. Entitateak bere kontuak Kontu Auzitegiaren Plataforman argitaratzen dituen web orrian, Kontu Emankizunari buruzko informazioa ematen du esplizituki.	0
2) Gardentasuna udalaren diru-sarrera, gastu eta zorretan (5)	
43. Urteko kontuak/Udalaren kontu orokorra (balantzea, ekonomia- eta ondare-emaitzaren kontua, memoria eta aurrekontuaren likidazioa) argitaratzen dira.	0,1
44. Adierazleak argitaratu dira: a) Biztanleko zerga-sarrerak (Zerga-sarrerak/Ez-biztanleak); eta b) Biztanleko inbertsioa (Onartutako obligazio garbiak (VI. eta VII. kapituluak)/Biztanle ez direnak).	0,8
45. Hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epeari buruzko informazioa argitaratzen da, aurrekontuen egonkortasunari buruzko araudiaren arabera.	0,8
46. Udal zor publiko bateratuaren zenbatekoa eta aurreko ekitaldiekin alderatuta izan duen bilakaera argitaratzen da.	1
47. Kanpo-kontrolako organoek (Ganbera edo Kontuen Auzitegiak) Kontuen Auditoretza eta Fiskalizazio Txostenak argitaratzen dituzte, bai Udalarenak bai udal sektore publikoko erakundeenak.	0,4

D) GARDENTASUNA KONTRATAZIO, HITZARMEN, DIRULAGUNTZA ETA ZERBITZUEN KOSTUETAN (12)	65,00%
1) Kontratazioak (7)	4,8
48. Udalak egindako kontratu guztiak (txikiak ez diren kontratu guztiak) berehala argitaratzen dira, honako hauek adierazita: xedea, lizitazioaren eta esleipenaren zenbatekoa, erabilitako prozedura, publikitatea egiteko erabili diren tresnak, bakoitzean parte hartu duten lizitatuzaileen kopurua eta esleipendunen nortasuna.	1
49. Udalak egindako kontratu txikiak aldian-aldian argitaratzen dira (gutxienez hiru hilean behin), haien zenbatekoei eta esleipen-hartzaileei buruzko informazio zehatzarekin (esteka zuzen eta berezi baten bidez).	0
50. Udalak egindako kontratuen aldaketak (webgunean zuzeneko eta berriazko esteka baten bidez).	1

51. Kontratazio mahaien osaera, izendatzeko modua eta deialdiak azaldu dira.	1
52. Kontratazio-mahaien aktak argitaratu dira (informazio horretarako esteka zuzen eta berezi baten bidez).	1
53. Sektore publikoko kontratuen legerian aurreikusitako prozedura bakoitzaren bidez esleitutako kontratuen aurrekontu bolumenaren portzentajeari buruzko datu estatistikoak.	0,8
54. Udalak bere kontratuak Sektore Publikoko Kontratazio Plataforman (HLKP) argitaratzen dituela adierazten du, berariaz webgunean (zuzenean edo kontratazio autonomikoko plataforman gehituz).	0
2) Hitzarmenak, kudeaketa-mandatuak eta diru-laguntzak (3)	2
55. Sinatutako hitzarmenen eta kudeaketa-mandatuaren zerrenda, alderdi sinatzaileak, xedea eta, hala badagokio, hitzartutako betebeharrak ekonomikoak adieraziz.	1
56. Udalak emandako diru-laguntza eta laguntza publikoen zerrenda zehaztua, haien zenbatekoa, helburua eta onuradunak adierazita.	1
57. Udaleko talde politiko bakoitzari ematen zaizkion diru-kopuruak argitaratzen dira.	0
3) Hornitzaileak eta zerbitzuen kostuak (2)	1
58. Udaleko hornitzaile, esleipendun eta kontratista garrantzitsuenekin egindako eragiketen zerrenda eta/edo zenbatekoa argitaratzen da.	1
59. Udalak emandako zerbitzuen benetako kostuari buruzko informazioa argitaratzen da (HAP/2075/2014 Aginduaren araudian oinarrituta).	0
E) HIRIGINTZA, HERRI LAN ETA INGURUMEN ARLOETAKO GARDENTASUNA (12)	96,67%
1) Hiri-antolamenduko planak eta hirigintza-hitzarmenak (5)	5
60. Hiri Antolamenduko Plan Orokorra (HAPN) eta hura zehazten duten mapak eta planoak.	1

61. Ingurumen-arloari dagokionez, honako hauek argitaratu dira: a) Ingurumenari buruzko Udalaren politikak eta programak, bai eta horien jarraipen-txostenak ere; b) Ingurumenaren eta paisaiaren gaineko eraginari buruzko azterlanak eta ingurumen-elementuei buruzko arriskuen ebaluazioak (azterketa horiek egin ez badira, berariaz aipatuko dira webgunean).	1
62. HAPOn onetsitako aldaketak eta onetsitako plan partzialak.	1
63. Udalaren hirigintza hitzarmenei eta gauzatzen ari diren hirigintza jarduketei buruzko informazio zehatza.	1
64. Udalerriko lurzoruaren erabilera eta xedeei buruzko informazio zehatza.	1
2) Herri-lanen lizitazioei buruzko informazioa (4)	4
65. Herri lanen proiektuak, agiriak eta lizitazio irizpideak.	1
66. Obra garrantzitsuenen proiektuetako aldaketak, aldaketak eta osagarriak (webgunean zuzeneko eta berariazko esteka baten bidez) (halakorik izan ez bada, espresuki adieraziko da).	1
67. Udalak deitutako herri lanen lizitazioetan parte hartu duten enpresen zerrenda.	1
68. Udalean obra publiko garrantzitsuenak egin dituzten enpresen zerrenda, obrak eta haien zenbatekoa adierazita.	1
3) Hirigintza eta azpiegitura-obrak (3)	2,6
69. Martxan dauden azpiegiturako obra garrantzitsuenei buruzko informazio zehatza (obraren helburuak eta udal arduraduna; kontratista arduraduna(k); aurrekontuaren zenbatekoa; gauzatzeko epea).	1
70. Gutxienez sei hilean behin, egindako azpiegitura-obrei buruzko informazioa ematen da, eta, hala badagokio, egin gabe daudenak (txostenak, jakinarazpenak, prentsa-oharrak, etab.).	1
71. Adierazleak argitaratu dira: a) Azpiegituretan egindako inbertsioa biztanleko eta b) Hirigintzaren diru-sarreraren proportzioa guztizko diru-sarrerekiko (webgunean adieraziko dira hirigintzako diru-sarrerak: hirigintzako lizentziak, OHZ, EIOZ, hirigintzako aprobetxamendua, lurren besterentzea, etab.).	0,6

F) INFORMAZIOA ESKURATZEKO ESKUBIDEA (9)	38,89%
1) Ikuspena, kanalak eta informazio publikorako sarbidearen ezaugarriak (6)	2,8
72. Udalaren web-orriak eta/edo gardentasun-atariak gune nabarmena edo atal bat du, erraz ikusteko eta argi eta garbi identifikatzeko modukoa, informazioa eskuratzeko eskubidea zabaltzeko eta administrazio-prozedura honen sarbidea errazteko.	0,5
73. Badago eta gaituta dago administrazio-prozedura presentzial bat (ez elektronikoa) informazioa eskuratzeko eskubidea erabiltzeko, eta kasu guztietan, interesdunari eman beharreko urratsei, ordutegiei eta betebeharrei buruzko informazioa eskaintzen zaio.	1
74. Udalaren gardentasunaren atalean edo atarian web formulario bat edo kanal elektroniko bat jartzen da, informazio publikoan sartzeko eskaerak egiteko.	0,8
75. Sartzeko eskaeren kanal elektronikoak interesdunaren hainbat identifikazio-mota onartzen ditu, hala nola helbide elektroniko bat, autentifikazio elektroniko arrunta (v.g. ziurtagiri digitalak lortu/instalatu eta/edo datu fiskalak eman beharrik ez dutenak	0,5
76. Informazioa eskuratzeko eskaeren kanal elektronikoak aukera ematen du, era berean, interesdunaren eskaeraren tramitazioaren jarraipena egiteko, edo espediente horien kudeaketaren jarraipen zentralizatua dago, haien egoeraren berri izateko.	0
77. Udalaren webgunetik (edo, hala badagokio, gardentasunaren ataritik) bide erraz eta irisgarria eskaintzen da, informazioa eskuratzeari buruzko kexak edo iradokizunak aurkezteko.	0
2) Erreklamazioak eta informazio publikoa eskuratzeko eskubidearen ebaluazioa (3)	0,7
78. Informazioa eskuratzeko eskubidea osorik edo hein batean ukatzeagatik erreklamazioak aurkezteko baldintzak eta prozedura modu erraz eta argian zabaltzen dira Udalaren webgunean edo gardentasunaren atarian.	0,2

79. Web orrian argi eta garbi ikus daiteke zein udal arlo edo entitateren aurrean aurkeztu behar diren erreklamazioak, informazioa eskuratzeko eskubidea erabat edo hein batean ukatzeagatik.	0,5
80. Udalaren web-orrian edo gardentasun-atarian, gutxienez bi hilean behin, honako datu hauei buruzko informazio estatistikoa argitaratuko da: informazioa eskuratzeko jasotako eskaeren kopurua; epearen barruan ebatzitakoak; osorik edo zati batean ezetsiak; eta informazioa eskuratzeko jasotako eskaeren gaikako laburpen orokorra.	0

- Eranskina II

A. ATALA

<u>UDAL GARDENTASUNA</u>		
	ARGITALPENA	ARGITALPENAREN EHUNEKOA
HAUTETSIEI ETA UDALEKO LANGILEEI BURUZKO INFORMAZIOA	14/33	42,42%
Alkatearen eta udaleko zinegotzien datu biografikoak zehazten dira.	✓	
Alkatearen eta udaleko zinegotzien helbide elektronikoak zehazten dira.	✓	
Udalaren konfiantzako karguen (postuen) zerrenda eta haien ordainsarien banakako edo taldeko zenbatekoa argitaratzen dira.	✓	
Udaleko lanpostuen zerrenda (LPZ) osorik argitaratzen da.	✓	
Argitara ematen dira Udaleko goi kargudunek (hautetsiek, gutxienez) jasotzen dituzten ordainsariak eta Udalak partaidetutako entitateetako arduradun nagusiek jasotzen dituztenak.	✓	
Karguak uzteagatik jasotzen diren kalte-ordainak jakinarazten dira.	X	
Toki Araubidearen Oinarriari buruzko Legean aurreikusitako Jardueren eta Ondasunen Interesen Erregistroa argitaratzen da.	✓	
Organo eskudunak karguek egin beharreko jarduera pribatuen bateragarritasunari buruz emandako ebazpenak argitaratu dira.	X	
Udal albisteen modulu bat dago webgunean.	✓	
Kontuak ematearekin zerikusia duten gobernu kideen jarduketari buruzko berriak argitaratzen dira.	X	
Gobernuaren kudeaketaren kontrolarekin zerikusia duten oposizioko kideen jarduketari buruzko berriak argitaratu dira.	X	
Alkatearen errenta-aitorpena argitaratzen da.	X	
Zinegotzien errenta aitortpena argitaratzen da.	X	
Izendapen libreko karguen edo, hala badagokio, behin-behineko langileen errentaren aitortpena argitaratzen da.	X	
Alkatearen nomina argitaratzen da.	X	
Zinegotzien nomina argitaratzen da.	X	
Izendapen libreko karguen edo, hala badagokio, behin-behineko langileen nomina argitaratzen da.	X	
Alkatearen ondare- eta ondasun-deklarazioa argitaratzen da.	X	
Zinegotzien ondare- eta ondasun-deklarazioa argitaratzen da.	X	
Izendapen libreko karguen edo, hala badagokio, behin-behineko langileen ondare- eta ondasun-deklarazioa argitaratzen da.	X	
Alkatearen osoko bilkuretara, batzordeetara eta dietetara joateagatik ordainsariak argitaratzen dira.	X	

Zinegotzien osoko bilkuretara, batzordeetara eta dietetara joateagatiko ordainsariak argitaratzen dira.	X	
Alkatearen c.v.	✓	
Zinegotzien oniritzia argitaratzen da.	✓	
Alkatearen sare sozialetarako esteka dago.	X	
Zinegotzien sare sozialetarako esteka dago.	✓	
Udalaren sare sozialen mapa argitaratu da.	✓	
Udalaren organigrama argitaratu da.	✓	
Alkatearen agenda argitaratu da.	✓	
Zinegotzien agenda argitaratu da.	X	
Udalaren eta herritarren jardueren agenda argitaratzen da.	✓	
Alkateak eta zinegotziek sortutako bidaia-gastuak argitaratzen dira.	X	
Alkatearen eta zinegotzien prestakuntza-maila egiaztatzen duten titulazioak.	X	
	ARGITALPENA	ARGITALPENAREN EHUNEOA
UDALAREN ANTOLAKETARI ETA ONDAREARI BURUZKO INFORMAZIOA	8/10	80,00%
Gobernu organoak eta haien eginkizunak zehazten dira.	✓	
Erakunde deszentralizatuen, entitate instrumentalen eta udal sozietateen oinarritzko datuak zehazten dira, baita haien webguneetarako estekak ere.	✓	
Lanpostuen zerrenda (LZ) edo erakunde deszentralizatuetako, erakunde instrumentaletako eta udal sozietateetako langileen plantillak osorik argitaratzen dira.	✓	
Higiezin zerrenda argitaratzen da (bulegoak, lokalak, etab...), bai berezkoak bai errentamendukoak, okupatuak eta/edo Udalari atxikiak.	✓	
Udalari atxikitako ibilgailu ofizialen (bertakoak edo alokatuak) kopurua argitaratzen da.	✓	
Balio historiko-artistikoa eta/edo balio ekonomiko handia duten ondasun higigarrien zerrenda argitaratzen da.	X	
Udalaren ondasun eta eskubideen inbentarioa argitaratzen da.	✓	
Udalaren ibilgailu parkeari buruzko datuak argitaratu dira: ibilgailuen zerrenda, matrikulazio urte bakoitzeko, erabilera eta gutxi gorabeherako balioa.	✓	
EPPetako ibilgailuei buruzko datuak argitaratu dira: ibilgailuen zerrenda, matrikulazio urte bakoitzeko, erabilera eta gutxi gorabeherako balioa.	X	
Udaleko talde politikoentzako urteko esleipenak.	✓	
	ARGITALPENA	ARGITALPENAREN EHUNEOA

UDAL ARAU ETA ERAKUNDEEI BURUZKO INFORMAZIOA	5/11	45,45%
Udal ordenantzak argitaratzen dira.	X	
Osoko Bilkuretako gai zerrendak, bilkura baino lehen.	✓	
Udalaren osoko bilkuren aktak.	✓	
Gobernuak eta kide anitzeko organoek bilerak egin aurretik egin beharreko gai-zerrenda argitaratzen da.	X	
Gobernuaren eta kide anitzeko organoen bileren aktak argitaratzen dira.	X	
Osoko bilkurak Interneten bidez egiten dira eta/edo on line ikus-entzunezko artxibo historikoa dago horietan.	✓	
Oposizioak gobernuari egindako kontrol-galderak argitaratu dira.	X	
Udalaren "Kode etikoa edo gobernu onekoa" dago eta argitaratzen da (ahal dela, FEMPeke talde politikoek aho batez onartutako tokiko gobernu onaren kodeari egokitua).	✓	
Gardentasunari buruzko ordenantza bat dago eta argitaratzen da (ahal dela, FEMPeke onartutako Tokiko Gardentasunari buruzko Ordenantzari egokitua), FEMPeke onartutako Tokiko Gardentasunari buruzko Ordenantzari egokitua).	X	
Ebazpen judizialak argitaratu dira.	✓	
Erantzukizun Sozial Korporatiboaren Plana badago eta argitaratzen da.	X	
	ARGITALPENA	ARGITALPENAREN EHUNEKOA
UDALETXEAREN PLANGINTZA ETA ANTOLAMENDUA	3/11	27,27%
Helburu zehatzak finkatzen dituzten urteko eta urte anitzeko planak eta programak argitaratzen dira, baita horiek lortzeko aurreikusitako jarduerak, baliabideak eta denbora ere.	✓	
Langileak hautatzeko prozesuak argitaratu dira.	✓	
Indarra duten lan baldintzak eta hitzarmen kolektiboak arautzen dituzten akordio edo itunak argitaratzen dira.	X	
Testu arauemaileak argitaratzeko espedienteak osatzen dituzten memoria eta txostenak argitaratzen dira.	X	
Indarra duen legeriaren arabera, tramitazioan jendaurrean jarri behar diren agiriak argitaratzen dira.	X	
Emakumeen eta gizonen berdintasun eraginkorrerako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan oinarritutako Genero Berdintasunerako Plan Estrategikoa dago eta argitaratzen da.	✓	
Dokumentuak eta artxiboak kudeatzeko politika argitaratzen da.	X	
Dokumentuak ezabatzeko indarrean dauden arauak eta prozedurak argitaratzen dira.	X	

Langileen ordezkariak osatzen dituzten pertsonen identifikazioa eta liberatu sindikalen kopurua, sindikatua eta liberazio horiek dakartzaten kostuak, soldatak, bitarteko materialak, dirulaguntzak eta sor ditzaketen bestelako kostuak bereiziz.	X
Lan absentismoko plan bat dago eta argitaratu da.	X
Laneko absentismoari buruzko urteko datuak eta azken 5 urteetako bilakaerak argitaratu dira.	X

GARDENTASUN-MAILA ESTIMATUA	46,15%
Indizeak guztira	65
Betetzen diren indizeak	30

B. ATALA

HERRITARREN PARTAIDETZA ETA LANKIDETZA

	ARGITALPENA	ARGITALPENAREN EHUNEKOA
HERRITARRENTZAKO INFORMAZIOA ETA ARRETA	9/11	81,82%
Jendaurrean zabalik dauden kultur eta kirol establezimenduen ordutegiak eta prezioak argitaratzen dira.	✓	
Interesdunek online jarrai dezakete izapidetze-egoera eta planteatu duten administrazio-prozeduraren gorabeherak.	✓	
Udalaren web gunearen mapa ikus daiteke.	✓	
Web-orrian trafikoaren egoeraren eta mozketen eta/edo udal zerbitzuetako gorabeheren berri ematen da.	✓	
Udalerriko ingurumen-egoerari (airearen kutsadura eta akustikoa) buruzko informazio eguneratua biltzen da webgunean.	✓	
Udalerriko auzo-elkarteentzat gordetako gune bat dago webgunean.	✓	
Eztabaida-foroak daude Udalaren webgunean.	✓	
Webgunea ingelesez argitaratzen da.	X	
Web instituzionalean modulu bat dago, argitaratutako informaziorako sarbide unibertsala ahalbidetzen duena.	X	
Gardentasunari buruzko informazioa modu egituratuan dago webgune instituzionalean edo gardentasun-atarian.	✓	
Gardentasunari buruzko informazio guztia indexatuta dago webgune instituzionalean edo gardentasun-atarian.	✓	

	ARGITALPENA	ARGITALPENAREN EHUENKOA
HERRITARREKIKO KONPROMISO-MAILA	13/22	59,09%
Onartuta dago eta Udalaren Plan Estrategikoa (edo Mapa Estrategikoa) argitaratu da.	✓	
Herritarren Partaidetzaren Erreglamendua dago eta argitaratzen da.	✓	
Herritarrek parte hartzeko udal-kontseiluak daude eta horien berri ematen da.	✓	
Barrutiko Udal Batzordeen edo udalerriko auzoen osaeraren eta funtzionamenduaren berri eman da.	✓	
Herritarrek gai estrategikoetan parte hartzeko bideak daude (hiriko foroak, hirigintzako kontseilu sozialak, plan estrategikoetarako edo hiri-planetarako herritarren mahaiak...).	✓	
Udal aurrekontuak egiteko iradokizunak eta herritarren parte-hartzea ahalbidetzen dira.	✓	
Udal-zerbitzuen gutun bat/batzuk daude eta horien berri ematen da, bai eta horietan ezarritako konpromisoen betetze-maila ere.	✓	
Herritarren arretarako bulego bat dago.	✓	
Herritarren arretarako online bulego bat dago.	X	
Lankidetzaren arautzeko mekanismoak daude (e-rulemaking).	X	
Gobernu irekiko zinegotzigoa, teknologia berriak eta herritarren parte-hartzea.	✓	
Alkatearen postontzia dago.	X	
Kexa eta erreklamazioen postontzia dago.	✓	
Badago komunikatzeko eta udalaren gorabeherak komentatzeko tresna bat(kalteak, konponketak, etab.).	✓	
Gorabeheren ebazpenari dagozkion txostenak argitaratzen dira.	X	
Herritarrei informazio publikoa eskatzeko tresna edo online inprimakiren bat dago.	✓	
Eskaera horiei buruzko txosten estatistiko bat argitaratzen da aldian behin (gutxienez urtean behin), ebatzita, baietsien, ezetsien eta onartutakoaren kopuru osoa eta ehunekoa zehaztuz.	X	
Tresna edo formulario bat dago, herritarrek udaleko gobernu-organoei proposamenak edo eskaerak egiteko aukera izan dezaten.	✓	
Proposamen horiek jendaurrean jarri dira.	X	
Argi eta garbi dago identifikatuta informazioa eskuratzeko eskaerak tramitatu eta haien jarraipena egiteko eskumena duen ad hoc organo edo sail bat.	X	
Gardentasun Unitate bat dago, eta haren funtzioak, unitatearen arduraduna eta harekin harremanetan jartzeko datuak adierazten dira.	X	

Tresna edo bisore baten bidez kontuak emateari buruzko informazioa argitaratzen da, herritarrek hauteskudeetako eta/edo gobernuko konpromisoak legegintzaldian zenbateraino bete diren jakin dezaten.	X
---	---

GARDENTASUN-MAILA ESTIMATUA	66,67%
Indizeak guztira	33
Betetzen diren indizeak	22

C. ATALA

<u>GARDENTASUN EKONOMIKO-FINANTZARIOA</u>		
	ARGITALPENA	ARGITALPENAREN EHUNEKOA
KONTABILITATEARI ETA AURREKONTUEI BURUZKO INFORMAZIOA	4/5	80,00%
Jendaurrean egoteko aldian aurrekontuei egindako alegazioak argitaratu dira.	X	
Osoko Bilkurak onetsitako aurrekontu-aldaketak argitaratu dira.	✓	
Erakunde deszentralizatuen, erakunde instrumentalen eta udal sozietateen aurrekontuak argitaratu dira.	✓	
Biztanleko superabita (edo defizita) adierazlea argitaratzen da (aurrekontu emaitza doitua / biztanle kopurua)	✓	
Adierazlea: Autonomia fiskala (Tributu bidezko diru-sarreraren eskubide onartu garbiak / Onartutako eskubide garbiak guztira).	✓	
	ARGITALPENA	ARGITALPENAREN EHUNEKOA
GARDENTASUNA UDALAREN DIRUSARRERA ETA GASTUETAN	5/5	100,00%
Adierazle hau argitaratu da: diru-sarrera fiskalak biztanleko (zerga-sarrerak/biztanle kopurua).	✓	
Adierazlea argitaratzen da: Gastua biztanleko (Onartutako obligazio garbiak / Biztanle-kopurua).	✓	
Adierazlea: Inbertsioa biztanleko (Onartutako obligazio garbiak (2. kap.) VI eta VII) / Biztanle kopurua).	✓	
Adierazlea: Ordaintzeko batez besteko epea (Ordaintzeko dauden obligazioak x 365 / Onartutako obligazio garbiak).	✓	

Adierazlea: Kobratzeko batez besteko epea (Kobratu gabeko eskubideak (2. kap.) I-III) x 365 / Onartutako eskubide garbiak).	✓	
	ARGITALPENA	ARGITALPENAREN EHUNEKOA
GARDENTASUNA UDAL-ZORRETAN	2/4	50,00%
Udal zor publikoaren zenbatekoa argitaratzen da.	✓	
Zorraren bilakaerari buruzko datuak ematen dira, aurreko ekitaldiekin alderatuta.	✓	
Hurrengo adierazlea argitaratzen da: Biztanleko zorpetzea (pasibo galdagarria (finantzarioa) / biztanle kopurua).	X	
Hurrengo adierazle hau argitaratu da: zorpetze erlatiboa (Udal Zorra/Udalaren guztizko aurrekontua).	X	
	ARGITALPENA	ARGITALPENAREN EHUNEKOA
AURREKONTUEN INFORMAZIOA ETA INFORMAZIO EKONOMIKOA	3/13	23,08%
Udalaren aurrekontuak argitaratzen dira, aurrekontuko kontusail nagusiak deskribatuz eta haien exekuzio egoerari buruzko informazio eguneratuarekin.	✓	
Urteko kontuak/Udalaren kontu orokorra (balantzea, ekonomia- eta ondare-emaitzaren kontua, memoria eta aurrekontuaren likidazioa) argitaratzen dira.	X	
Kanpo-kontrolako organoek (Ganbera edo Kontuen Auzitegia), Udalak eta Udalaren sektore publikoko erakundeek egindako Kontuen Auditoretza eta Fiskalizazio Txostenak argitaratzen dira.	✓	
Aurrekontuaren onespina argitaratzen da.	X	
Aurrekontuaren memoria argitaratzen da.	X	
Kontsolidazio-egoera argitaratzen da.	X	
Ekonomia- eta finantza-txostena argitaratzen da.	X	
Aurrekontuen egonkortasunari buruzko txostena argitaratzen da.	X	
Aurrekontua betearazteko oinarriak argitaratu dira.	X	
EPPren urteko kontuak argitaratu dira (balantzea, emaitzen kontua, memoria eta likidazioa).	X	
Hiru hilabete behin edo sei hilabete behin, aurrekontuaren exekuzioari buruzko informazioa argitaratzen da.	✓	
Sarrera eta gastuen egoera-orriak argitaratzen dira (Udala, LHE eta erakundeak)	X	
Gardentasun ekonomiko-finantzarioaren bisore bat dago. Bertan, aurrekontuaren datuak eta gauzatze-egoera erakusten dira, modu grafiko, argi, eskuragarri eta herritarrek ulertzeko moduan.	X	

GARDENTASUN-MAILA ESTIMATUA	51,85%
Indizeak guztira	27
Betetzen diren indizeak	14

D. ATALA

ZERBITZUEN KONTRATAZIOA		
	ARGITALPENA	ARGITALPENAREN EHUNEKOA
ZERBITZUAK KONTRATATZEKO PROZEDURAK	3/3	100,00%
Kontratazio mahaien osaera, izendatzeko modua eta deialdiak azaldu dira.	✓	
Kontratazio-mahaien aktak argitaratu dira.	✓	
Kontratazio-prozedura guztiak Estatuko kontratazio-plataforman argitaratzen dira, Sektore Publikoko Kontratuen Legeak ezartzen duen bezala.	✓	
	ARGITALPENA	ARGITALPENAREN EHUNEKOA
HORNITZAILE ETA KONTRATISTEKIKO HARREMANAK ETA ERAGIKETAK	2/2	100,00%
Udaleko hornitzaile garrantzitsuenekin egindako eragiketen zerrenda eta/edo zenbatekoa argitaratzen da.	✓	
Udaleko esleipendun eta kontratista garrantzitsuenekin egindako eragiketen zerrenda eta/edo zenbatekoa argitaratzen da.	✓	
	ARGITALPENA	ARGITALPENAREN EHUNEKOA
KONTRATUAK, HITZARMENAK ETA DIRU-LAGUNTZAK	6/11	54,55%
Formalizatutako kontratu guztiak argitaratzen dira, honako hauek adierazita: xedea, lizitazioaren eta esleipenaren zenbatekoa, erabilitako prozedura, publizitatea egiteko erabili diren tresnak, prozeduran parte hartu duten lizitatuzaileen kopurua eta esleipendunen nortasuna.	✓	
Formalizatutako kontratuen aldaketak argitaratu dira.	✓	
Aldizka argitaratzen dira (gutxienez hiru hilean behin) formalizatutako kontratu txikiak, gutxienez modu agregatuan (kontratu-kopurua eta zenbateko osoa).	X	
Sektore publikoko kontratuen legerian aurreikusitako prozedura bakoitzaren bidez esleitutako kontratuen aurrekontu bolumenaren ehunekoari buruzko datu estatistikoak argitaratzen dira.	✓	

Kontratazio publikoari buruz indarra duen araudiari buruzko informazioa argitaratzen da.	X
Sinatutako hitzarmenen zerrenda argitaratzen da, alderdi sinatzaileak, xedea eta, hala badagokio, hitzartutako betebeharrak ekonomikoak aipatuz.	✓
Emandako diru-laguntza eta laguntza publikoak argitaratzen dira, haien zenbatekoa, helburua eta onuradunak adierazita.	✓
Entitateak sinatutako kudeaketa aginduak argitaratzen dira.	✓
Entitateak sinatutako administrazio emakidak argitaratu dira.	X
Publizitate instituzionaleko kanpainetan egindako gastu publikoa.	X
Alarma-egoerari lotutako larrialdiko kontratu publikoen zerrenda argitaratzen da, baita esleitutako eta ebaluatzen ari diren kontratuei ere (etetea, suntsiaraztea, atzera egitea, etab.).	X

GARDENTASUN-MAILA ESTIMATUA	68,75%
Indizeak guztira	16
Betetzen diren indizeak	11

E. ATALA

<i>HIRIGINTZA ETA HERRI LANAK</i>		
	ARGITALPENA	ARGITALPENAREN EHUNEKOA
<i>HIRI-ANTOLAMENDUKO PLANAK ETA HIRIGINTZA-HITZARMENAK</i>	4/4	100,00%
Hirigintzari buruzko web gunean atal bat dago ikusgai.	✓	
Hiri Antolamenduko Plan Orokorra (HAPO) argitaratuta dago.	✓	
HAPOn zehazten diren mapak eta planoak argitaratzen dira.	✓	
HAPOn onartutako aldaketak argitaratzen dira (eta argitaratuta mantentzen dira).	✓	
	ARGITALPENA	ARGITALPENAREN EHUNEKOA
<i>HIRIGINTZAKO BIRKALIFIKAZIO ETA ESLEIPENEI BURUZKO ERABAKIAK</i>	2/2	100,00%
Udalaren hirigintza hitzarmenei buruzko informazio zehatza argitaratzen da.	✓	
Lurzoruaren erabilera eta xedeei buruzko plan partzialei buruzko informazio zehatza argitaratzen da.	✓	

	ARGITALPENA	ARGITALPENAREN EHUNEKOA
HERRI LANETAKO IRAGARKIAK ETA LIZITAZIOAK	3/4	75,00%
Udalaren hirigintza kudeaketaren arloan indarra duen araudiari buruzko informazio zehatza ematen da.	✓	
Herri lan garrantzitsuenen proiektuak, agiriak eta lizitazio irizpideak argitaratu dira.	✓	
Obra garrantzitsuenen proiektuen aldaketak argitaratu dira.	✓	
Obra eta Hirigintzako Informazio Batzordearen aktak argitaratu dira.	✗	
	ARGITALPENA	ARGITALPENAREN EHUNEKOA
LEHIATZAILEEI, ESKAINTZEI ETA EBAZPENEI BURUZKO INFORMAZIOA	2/2	100,00%
Herri lanen lizitazioan parte hartu duten enpresen zerrenda argitaratzen da.	✓	
Urbanizazio obra garrantzitsuenak egin dituzten enpresen izenak argitaratzen dira.	✓	
	ARGITALPENA	ARGITALPENAREN EHUNEKOA
OBREN JARRAIPENA ETA KONTROLA	3/5	60,00%
Martxan dagoen azpiegiturako obra garrantzitsuenei buruzko informazio zehatza ematen da (obraren helburuak eta udal arduraduna; kontratista arduraduna(k); aurrekontuaren zenbatekoa; gauzatzeko epea).	✓	
Udal obra garrantzitsuenen amaierarako aurreikusitako data zehatza (500.000 eurotik gora) argitaratzen da, edo obrak hasteko data zehatza eta obrak egiteko epea.	✗	
Aldian behin (sei hilean behin, gutxienez), egindako azpiegitura-obrei buruzko informazioa ematen da, eta/edo egiteke daudenak (txostenak, jakinarazpenak, prentsa-oharrak, etab...).	✓	
Egindako obrak eta azpiegiturak ezagutzeko tresna edo bisoreren bat dago, baita horien egoerari, aurrekontuari eta bilakaerari buruzko datuak ere.	✓	
Udalak lurralde-kudeaketarako eta/edo hiri-plangintzarako sistema integrala dauka.	✗	
	ARGITALPENA	ARGITALPENAREN EHUNEKOA
HIRIGINTZA ETA OBRA PUBLIKOEI BURUZKO ADIERAZLEAK	2/3	66,67%
Adierazlea argitaratzen da: azpiegiturretako inbertsioa biztanleko (ekitaldiko gastuak (eginak) inbertsioan (6. kapitulua) azpiegiturretan / biztanle kopurua).	✓	

Adierazlea: Hirigintzaren ondoriozko diru-sarreraren portzentajea / Diru-sarreraren aurrekontu osoa.	✓
Adierazlea: Hirigintzaren ondoriozko gastuen portzentajea / Gastuen aurrekontu osoa.	✗

GARDENTASUN-MAILA ESTIMATUA	80,00%
Indizeak guztira	20
Betetzen diren indizeak	16

F. ATALA

<u>OPEN DATA</u>		
	ARGITALPENA	ARGITALPENAREN EHUNEKOA
OPEN DATA	0/2	0,00%
Datuak formatu irekian argitaratzen dira.	✗	
Open Data plataforma bat dago.	✗	


GARDENTASUN-MAILA ESTIMATUA	0,00%
Indizeak guztira	2
Betetzen diren indizeak	0

- Eranskina III

ATALAK	DATUAK
<i>Udal-gardentasuna</i>	46,15%
<i>Partaidetza eta lankidetza</i>	66,67%
<i>Gardentasun ekonomiko-finantzarioa</i>	51,85%
<i>Zerbitzuen kontratazioa</i>	68,75%
<i>Hirigintza eta herri-lanak</i>	80,00%
<i>Open Data</i>	0,00%

GARDENTASUN-MAILA TOTALA (2021)	57,06%
Indizeak guztira	163
Betetzen diren indizeak	93

ATAL BAKOITZAREN AZTERKETA EHUNEKOTAN (2021)




- Eranskina IIII


<i>AZTERTUTAKO INDIZEAK (Puntu totalak)</i>	<i>PUNTUAZIO ESTIMATUA</i>	<i>ATAL BAKOITZEAN LORTUTAKO PUNTUAZIOA</i>
Publizitate aktiboa eta udal-korporazioaren informazioa (21 puntu)	14,7	70,00%
Web orrialdea, herritarrekin harremana eta herritarren partaidetza (15 puntu)	13	86,67%
Gardentasun ekonomiko-finantzarioa (11 puntu)	6,6	60,00%
Kontratazioen, hitzarmenen, subentzioen eta zerbitzuen kostuen gardentasuna (12 puntu)	7,8	65,00%
Hirigintzaren, obra publikoen eta ingurumenaren gardentasun (12 puntu)	11,6	96,67%
Informazio publikoaren sarbiderako eskubidea (9 puntu)	3,5	38,89%

• Eranskina IV


Adina
44 respuestas




Bermeon bizi eta erroldatuta zaude?
44 respuestas




Bermeoko Udalaren web orrialdea bisitatu duzu noizbait?
44 respuestas




Erantzuna baiezkkoa bada, zer nolako maiztasunarekin?
39 respuestas




Badakizu zer esan nahi duen udal-gardentasunak? (Erantzuna ezekoa bada, goiko aldean agertzen da definizioa)
44 respuestas




Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko Legea ezagutzen duzu?
44 respuestas




Lege horrek, herritarrentzat argitaratu behar den gutxieneko informazioa aipatzen du. Udaletxearentzat gutxieneko hori baino informazio gehiago argitaratzea komenigarria izango litzatekeela iruditzen zaizu?
44 respuestas



Zure ustez, zein/zeintzuk izan daiteke/daitezke legearen helburu/helburuak?
44 respuestas



Bermeoko udaletxeak, herritarren beharrak, kritikak eta iritziak kontuan hartzen dituela esango zenuke?
44 respuestas



Informazio publikoa eskatu duzu noizbait?
44 respuestas

